



## Behin, feria

Altsasun feriak ospatuko dira asteburuan. Egitarau betea prestatu dute / 12-13

**Uharteko Urak**  
boluntario taldea  
ikasleei errefortzu  
akademikoa ematen  
hasi zaio / 9

**Euskaraldia ariketa**  
eraginkorra dela  
erakutsi du haren  
ondoren egindako  
ikerketak / 6

**260 katxarro baino**  
gehiago Bakaikun,  
tartearen benetako  
altxorrak, eta jendetza  
Katxarro Egunean / 18-19

**Mastersa irabazita**  
paleta goma  
denboraldi  
ikaragarria borobildu  
du Asier Galarzak / 20

**Ane Zubeldia Morras**  
lakuntzarraren  
lehenengo manga  
estiloko marrazki  
erakusketa / 23



# "Mito bat da suizidioa ezin dela prebenitu"

**IRATXE ETXENIKE SARRATEA** PSIKOLOGOA ETA BIZIRAUN ELKARTEKO KIDEA  
Olatzagutiko Gazte Asanbladak antolatuta, suizidioari buruzko hitzaldia eman zuen Maisuenea gaztetxean igande arratsaldean

**Alfredo Alvaro Igoa** OLATZAGUTIA  
Biziraun elkartearen ekitaldietara, elkarreetara, gaztetxeetara hitzaldiak ematera joateko eskakerak jasotzen ditu. Olatzagutiko Gazte Asanbladarena izan zen haietako bat. Iganderako hitzartu zuten. "Gai nahikoa indartsua, behar ugari duen gaia. Gazte olaztiarrei esker, izan zuten adoreaengatik landutako gaia". Hitzaldian 30 bat pertsona baino gehiago bildu ziren, eta giroa oso polita izan zen. Adin tarte desberdineko jendea izan zen. Ez zeuden gazteak bakarrik, baziren maisuak, gurasoak...  
**Hitzaldia antolatzea suizidioak gazteen artean kezka sortzen duenaren seinalea da?**

Kezka, interesa eta garrantzia esanen nuke. Ez da bakarrik suizidioaren gaia, baizik eta suizidioaren atzean dagoen guztia, adimen osasunetik hasita. Sufrimenduaren inguruan ere asko hitz egin genuen igandean. Olatzagutiko gaztetxetik gurekin harremanetan jartzeak ematen du aditzera adimen osasunaren inguruko nolabaiteko kezka dagoela herrian eta inguruan. Eta

norbait ekartzeko ausardia hori izatea eta gaia lantzea ekintza nahiko positiboa da, ekarpen handia egiten du.

**Gizarteak heriotzari ezikusiarrena egiten dio?**

Bai, heriotza mota guztiei. Eta, bereziki, suizidioaren gaian estigma handia dugu; bai gerora gelditzen den erruduntasunarengatik, bai gerora gelditzen diren galdera guztiengatik... Eta ez heriotza bakarrik, baizik eta sufrimendua orokorrean. Eta beti lotu izan dugu heriotza zuzen-zuzenean sufrimenduarekin. Gainera, suizidioa egiazkoa baldin bada, hor gelditzen den hutsunea ikaragarria da.

**Heriotza baztertuta izateak heriotzaren bat iristean gehiago sufritzea ekar diezaguke?**

Heriotzaren inguruan hitz egitean eta gai horiek lantzean, iruditzen zait bizitzaren aldera hurbilpena egiten dugula. Hau da, zeinen garrantzitsua den gizartearen ere sufrimenduan eta heriotzaren inguruan hizketatzea. Azkenean, bizitzak inplikatzeko duen gauza da. Edozein pertsona jaiotzen dela ere, horrek suposatzen dio-

na da bizitza honetan sufritu egin behar duela, sufritzen ikasi behar du. Eta beti hor egonen da heriotza. Zenbat eta naturaltasun handiagoarekin jokatu, eta errealitate horretara hurbildu, beste modu batez bizitzen ikasten dugu.

**Suizidioaren prebentzioa landu daiteke?**

Bai. Hitzaldiaren zati handi bat izan zen suizidioaren inguruko mito ohikoenei buruzkoa, esaterako, hil nahi duenak ez du esaten. Nahiko hedatua dagoen mitoetako bat da suizidioa ezin dela prebenitu. Ez da horrela. Igandean gai horri ahotsa emateko baliatu genuen eta erakutsi genuen baietz, prebenitu daitekeela. Errealitatean, gauzak diren bezala, %100ak ezin ditugu prebenitu, baina bai prebenitu daitekeela. Ikasi beharra dugu zer arrisku faktore egon daitezkeen, zer babes faktore indartu behar diren. Eta gizarteari kritika bat eginez, ikasi behar dugu ez garelako inor epaitzeko bestea bizitzen ari dena, edo dituen problemak. Gu ez gara inor besteen sufrimenduak kritikatzeko.

**Nola egiten da suizidioaren prebentzioa?**

Guk gomendatzen dugun gauzetako bat da jendea hizketatzera animatzea. Baina hizketatzera animatu aurretik suizidioaren errealitatearen atzean zer dagoen pixka bat jakin. Esaterako, arrisku faktoreak. Guk beti lotu behar dugu suizidioaren errealitatea sufrimendu iturri indartsu batekin. Zergatik sufri dezake pertsona batek? Horrenbeste gauzengatik sufri daiteke... Arrisku faktoreen artean sartu daitezke, esaterako, bikote haustura, norbaiten heriotza, estres handia lanean, familian... Arrisku faktoreak anitzak izan daitezke. Babes faktoreak beste hainbeste izan daitezke. Eta guk horiek sustatzen jakin behar dugu: lagun talde ona izatea, gure sufrimendua edo egonezina utzi dezakegun guña bat izatea... Ikasi beharra dugu zein diren kutsu negatibo horiek, txikitzen saiatzeko, eta zein diren alderdi positibo horiek, sustatzeko. Betiere, kontuan hartuta zeinen positiboa den hizketatzea. Eta hitz egitekotan bihotzez eta laguntzeko nahiarekin egin behar dugu. Ezin dugu morborajo eta morbo hutsagatik galdetu, eta guk nahi dugun erantzuna dugunean alde egin. Sentsibilitate horrekin jokatu behar dugu prebentziora.

**Gaur egungo gizartearen... Arriskua besterik ez dute ikusten.**

Bizimodu gero eta azkarragoak inplikatzeko duen estres guztia, dena bukatu nahi izatea. Beste

**"NORBAIT EKARTZEKO AUSARDIA HORI IZATEA ETA GAIA LANTZEA EKINTZA NAHIKO POSITIBOA DA"**

**"SUIZIDIOAK ESTIGMA HANDIA DU; ONDORENGO ERRUDUNTASUNA ETA GALDERENGATIK"**


alderdi txar bat da nahiko gizarte konpetitiboa dela; akademikotik hasita, zeinen inportantea den nota onak eskuratzea, gero Unibertsitatean Sartzeko Ebaluazioan nahi nizan graduaren sartzeko. Nahiko konpetitiboa eta nahikoa indibiduala da gizartearen. Sare sozialekin, berdin. Iruditzen zait bizi garelako itxura eta azal bat erakusten. Alderdi positiboaren artean dago egiten al diren aktibismo positibo horiek guztiak. Nahiko beltza da, baina baditu bere diridira edo argitasun puntuak. Eta horiek dira indartu beharrekoak. Baina, bestalde, positiboa iruditzen zait sumatzea gazteak gero eta sentiberagoak direla. Eta sentiberatasun hori beraien osasunerako ere badute. Esaterako, Olatzagutira joateko gazteek hots egin izana, nahiko seinale positiboa da. Kezkatuta egonen dira, baina haiek beren borondatez mugitu dira. Beharra ikusi dute eta behar hori asetzeko prest daude.

**Argi izpi horietako bat izan daiteke Olatzagutiko kasuan mito, estigma edo tabu batzuk erortzen direla.**

Bai. Egin zuten pausorik handiena gaiaren inguruan hizketatzea izan zen. Elkarrekin, gaztetxe edo ikastetxeak animatzen ditut halako gai indartsuak lantzerako. Mitoei dagokionez, isiltasunak ez du onurarik ekartzen. Isiltasunak askoz ere min handiagoa sor dezake, eta min hori luzarazi dezake. Olatzagutiko gazteek eman zuten pausua da isiltasun hori hautsi eta errealitate honi ahotsa eman. Denok ongi asko dakigu errealitate hau guk uste baino hurbilago dagoela, eta behar handia dagoela gaia lantzeko. Iradokitzea, ausardia, atea irekitzea, nahiko positiboa da.


**Suizidio baten ondorengorako aholkurik badago?**

Guk ematen dugun gomendio handiena hizketatzera animatzea da. Baina, betiere, bihotzez, morboa alde batera utziz. Egiatan erakutsi pareko kide, inguruko edo senide horrekiko duzun egiazko kezka. Bidelagun rola hartu. Guk ez dugu inoren bizitza %100ean salbatuko, baina,



**EGOKI**  
Ventanas PVC Leihoak  
www.ventanasegoki.com  
Arkinoturri Industrialdea · Olazti

**GIDARIDUN LEHIO BERRIAK**  
Mugarik gabeko estetika moderna



Erakusketa: Olite kalea 16 · Iruñea

esaterako, sufritzen ari den pertsona bati egun batez eguna arintzen laguntzen badiogu, bidelagun rol hori betetzeko nahikoa lan bada. Ez dago erre-zeta edo esaldi magikorik. Pertsona bakoitza mundu bat da eta pertsona bakoitza tratatzeko modua desberdina da. Horrekin ere jokatu beharra dugu. Azkenean, norberak badaki norekin tratatzen ari den; bi pertsonak ez dute berdin erreakzionatuko. Beti nabari da pertsona bat zein asmorekin hurbiltzen zaizun. Sen onaz eta pazientziaz egiten baduzu, denbora eskainiz, gauza handiak lortu daitezke.

#### **Suizidioaren ondoren saiatzen gara seinaleren bat topatzen.**

Aita duela hiru urte hil zen. Pasatzen dena pasatzen dela, atzera bueltarik ez du. Zu atzera begira jartzen zara eta gero eta gauza gehiago ikusten hasten zara. Aita hil zela, bere ingurukoak hurbiltzen ziren eta galdeztzen zuten: "ez al zenuten deus ere sumatzen?" Normalean halako galderak askotan min egiten dute. Nahiko gai zaila izaten da, azken finean, lotuta dago erruduntasunarekin. Pentsatu, esaterako, atzera begiratu eta: "jo, egia da, hau zuen, hau zuen, hau zuen... eta ni ez naiz ohartu, ez dut nola jokatu asmatu". Erruduntasunarekin dago lotuta hori.

#### **Beharbada norberaren burua alferrik zigortzeko?**

Garbi eduki beharra dugu norberaren epailerik okerrera norbera dela. Nahiz eta pertsona baten bizitza gure eskutan %100ean ez egon, halako gauza bat pasatzen denean, badago ikaragarritzko tendentzia zigorra hartu eta norberaren buruaren kontra jotzeko. Askotan ematen du ingurukoek ere epaitzen zaituztela: "ez al zenuten nabaritu, ez al zenuten ezer egin, ez al zenuten medikura eraman..." Zaildu egiten du. Norberak bere burua zigortzen du, eta kanpotik ere bai.

#### **Min horrekin zer egin behar da?**

Halako gertakari bat pasatzean, askotan, niri ere pasa zitzaidan, bakararra sentitzen zara. Bakararra eta bakarrik sentitzen zara. Ez zaizu iruditzen zu bezalako beste inor badenik ere, zaila egiten zaizu zu bezalako beste norbaiti erreparatzea. Zeren eta kontuan eduki beharra dugu gai honek bere tabua, bere estigma duela. Ez da ohikoa egunerokotasunean hizketatzea. Orduan, zuri pasatzen



Iratxe Etxenike Sarratea, Biziraun elkarteak kidea, Olatzagutiko gaztetxean hitzaldia eman zuen. UTZITAKOIA

zaizunean, iruditzen zaizu zu bakarrik zarela, ez zaiola inori gehiagori pasa. Ni Biziraun elkartera joan nintzen aita hil eta hiru hilabetetara.

#### **Zer eskaini zizun elkarteak?**

Duda askorekin sartu nintzen, ez bainekien oso ongi non ari nintzen sartzen. Suizidio bidez hurbileko norbait galdu zuten pertsonen sostengua emateko sortu zen elkarteak. Bat etor nintekeela ikusi nuen, eta animatu nintzen. Elkartearen ekintza ohikoena da hilabete behin egiten diren bilerak. Senideren edo ingurukoren bat suizidio bidez galdu dugunak elkartzen

### **"HERIOTZAREN INGURUAN HITZ EGITEAN BIZITZAREN ALDERA HURBILPEN A EGITEN DUGU"**

gara eta gaiaren inguruan hizketatzen gara. Beti gaiak aldatzen dira. Esaterako, abenduan elkartzen garenean eguberriak nola pasa behar ditugun, zerbait aldatuko dugun... Elkar laguntzeko eta aditzeko. Elkar laguntza taldeak izena dute.

#### **Antzeko bizipenak izanda, elkarrekiko ulermena handia da?**

Bai, ikaragarria. Badira gauza asko zuk gizaratean, edozeinen aurrean, esan ezin dituzunak, baina elkartean esan ditzakezu. Elkarteko kideek antzeko zerbait bizi izan dute eta badakizu ez zaituztela epaituko. Hau da, barrua mugiarazten didan zerbait gizaratean esaten badut, beharbada, halako "belarriko mina" sortzen du. Gauza bera elkartean esanez gero, badakit erabat normala izanen dela, eta ez dudala epairik jasoko. Azkenean, toki segurua da, zeinetan zuk zure barne mundu hori filtrorik gabe

hustu dezakezun. Lagunekin gaiaren inguruan hizketatu zaitzake, baina, beharbada filtro batzuk jartzen dituzu.

#### **Aurrera egiteko makulu bat?**

Bai. Biziraun elkarteak. Nafarroan ere badago Besarkada elkarteak. Azkenean, bidelagunak dira. Halako elkarte batean hasten zara pentsatzen: "ez naiz bakararra, ez zait niri bakarrik pasa. Askoz jende gehiago dago". Ni sartu berri nintzela, taldean aspaldi zegoen jendea zegoen. Asko laguntzen du gaur egun haiek nola dauden ikusteak; garapen hori zeinen positiboa den, nola aurre egin diezaiokezun gertakari honi.

### **"NAHIKO HEDATUA DAGOEN MITOETAKO BAT DA SUIZIDIOA EZIN DELA PREBENITU. EZ DA HORRELA"**

Azkenean, indartzen zaitu. Positibotasun kutsu hori elkarren artean sustatzen da.

#### **Suizidioaren aurrean hedabideek nola jokatu behar dugu?**

Morbora ez jo. Metodoak ere ez dira aipatu behar. Gomendagarria da gaiaz hizketatzea. Betiere, kontuan hartu behar da gai honekiko zein den gure helburua: gure helburua da ale gehiago saltzea? Beraz, morbo gehiago sortu behar dugu? Eta morbo gehiago sortuta, familiari min egin behar diogu? Hori ez bada gure asmoa, saiatu behar dugu zerbait hezitzailea sortzen. Esaterako, famatu batena gertatzen delarik, gaia landu, aipatu suizidio bidez hil dela. Baina ez dugu sartu beharrik zer metodo izan den, zeinek aurkitu duen eta antzekoak. Buelta eman eta perspektiba hezitzaileago eta eraikitzaileago batetik landu behar da, eta prebentzio kutsua sar badaiteke, sartu. Halako gertaera negatibo batetik mezu positiboa eman behar da.

#### **Suizidio bat izaten denean, gizarateak nola erantzun beharko luke?**

Herri txikietan halakoak azkar asko zabaltzen dira. Errespetuz jokatu beharko genuke, morbora jo gabe. Esaterako, niri batere onik egin ez zidaten ingurukoek galdera batzuk egon ziren. Esate baterako: zehazki nola hil da? Zeinek artatu du? Ez al zenuten ezer ere sumatu? Askotan positiboagoa da hurbildu nahi duenak senide horrengana hurbiltzea, besarkada ematea eta hor egotea.

"Zerbait esan beharra diot. Ezin dut isilik egon". Presio hori ere badago, isiltasun horri zer beldur diogun. Baina kasu hauetan, askotan, ez beti, eman nahi den mezuaren arabera, isilik egonda, askoz hobeto. Gure esperientzia: kristoren zaplastekoa da, herria izoztuta gelditzen da. Guregana zerbait esatera hurbildu zirenak, guztiz positiboa, nahiko goxoa izan zen, eta hurbiltasun handia sortu zen.

#### **Suizidioaz gero eta gehiago hitz egiten da. Lerrora etortzen ari da?**

Urte luzez tapatuta egon da. Lehen, eta orain ere, askotan etxean pasatzen diren gauza horiek kanpoan ez dituzte kontatzen. Azkenean, gaizki bukatzen zen, eta da. Lehen lerrora ekartzen oso positiboa eta beharrezkoa da. Gizarate kontzientzia hartzen ari da. Eta ikusten du ere zer nolako kalteak sortzen dituen gaia ez lantzeak.





ASTEKOA

ANDREA CARRILLO JUANBELTZ

## Osasun Mentalaren inguruko ñabardurak

Urriaren 10ean Osasun Mentalaren Eguna ospatuko da. Gero eta gehiago hitz egiten da osasun mentalari buruz. Bai komunikabideetan, bai sare sozialetan ere, gero eta ohikoagoa da osasun mentalari buruzko informazioa agertzea. Dena den, ba al dakigu zeri buruz ari garen Adimen Osasuna aipatzen dugunean? Dirudien bezain agerikoa al da?

Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) arabera, "Osasun mentala ongizate estatu bat da, eta bertan pertsonak bere gaitasunak garatzen ditu eta bizitzako ohiko estresari aurre egin diezairoke, modu produktiboan lan egin dezake eta bere komunitateari lagundu". Argi dago, ordea, gaur egun oso jende gutxi arduratzen dela bere gaitasun mentala garatzeaz. Gaitasun fisikoa, bai, pertsona askok ariketa fisikoa egiten baitute hura lantzeko. Baina, ba al dugu gure osasun mentala garatzeko baliabiderik? Irakurketa, bizitzari aurre egiteko tresnak eta hausnarketa landu beharrean edota laguntza eskatu beharrean, nahiago dugu kaña bat hartu, aurreko guztiak alde batera utzita.

## NORBERAREN EZAUGARRI SOZIALAK ZAILTASUN BIHURTU DAITEZKE OSASUN MENTALA LANTZEKO ORDUAN

Alkohola, gainera, oso onartua dago gure gizartean.

Era berean, norberaren ezaugarri sozialak zailtasun bihurtu daitezke osasun mentala lantzeko orduan. Generoari dagokionez, gizonezkoek zailtasun

gehiago dituzte gaiari heltzeko. Emakumezkoek, berriz, gertuko osasunari begira bizi gara gehienetan. Klase soziala erabakigarria da osasun mentaleko arazoei aurre egingo badiegu, osasun sistema publikoak gabezia handiak baititu arlo horretan. Zer esanik ez, euren orientazio sexuala edo arraza dela-eta bazterkeria jasotzen dutenen kasuan, horiek nahikoa lan izaten dute gizartean leku bat lortzen.

Hortaz, oraindik lan asko dugu egiteko. Guztion osasun mentalerako eskubidea bermatzeko, dibertsitatea dutenengana ailegatu behar baikara aurretik.

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / [gutunak@guaixe.us](mailto:gutunak@guaixe.us)

## HARA ZER DIEN

### EAEko Administrazioak bi urtez garatu du espetxe eskumena

#### SAKANAKO SARE

2021eko urria prozesu baten hasiera izan zen, eta ikusmin positiboak sortu zituen garai berri bati hasiera emango geniolakoan. Garai berri horretan, espetxe politika normalizatu batek bidea ireki beharko luke, euskal presoek kasuan eskubideen urraketa argiak ekarri dituzten eta eragiten jarraitzen duten hainbat hamarkaden ondoren. Beraz, eta berriro ere argi utzi nahi dugu, inolako pribilegio eskaerarekin zerikusirik ez duen aldarrikapena dela gurea.

Oro har, espetxe eskumenaren garapenari buruzko balorazio itxaropentsua helarazi nahi dugu euskal presoek dagokienez.

Ildo horretan, gogoraraziko dugu 2021eko urriaren 1etik, Eusko Jaurlaritzak espetxe politikaren kudeaketa bere gain hartu zuenetik, salbuespenezko espetxe politika aplikatzen jarraitzen dela. Duela 20 urte baino gehiago sortu eta onartutako "terrorismoaren aurkako borrokan" pentsatutako legediak jasaten ari gara, egungo egoerarekin zerikusirik ez duen legedia alegia. Bitxia badirudi ere, gaur egun, 2023ko urrian, ETak 2011n bere jarduerak bertan behera utzi zituela eta 2018an desegin zela esaten jarraitu behar dugu. Eta hori ez da batere logikoa. ETA, JADA EZ DA EXISTITZEN.

Urrutitik, ehunka kilometrotara, fiskaltzatik eta Auzitegi Nazionaletik presoek buruzko erabakiak hartzen dituzte. Ez dakite ezer presoek benetako bilakaeraz eta ez zaie ezer axola.

Estatuko organo juridikoen jarduera blokeatzaileak sortzen duen kezka handia izanik ere, oro har aurrera egiten ari gara. Aurrerapen hori azkarrago egin nahiko genuke; izan ere, askatasunik gabeko pertsonak dira, urte askoko zigorrak betetzen ari direnak.

SAREren ustez, ezinbestekoa da, ausardiak eta atzerapenik

gabe, egoera normalizatzeko prozesu bati ekitea, bizi dugun unean kokatuta, gertatutakoaz ezer ahaztu gabe, baina behar diren neurriak hartuta, gaitutako indarkeriaren faseari behingoz bukaera emateko, min gehiago sor ez dadin.

Dinamika desberdinekin jarraituko dugu, euskal gizartearen zati gero eta garrantzitsuago batera iristea ahalbidetuko dutenak, eskubideen eremuari eragiten dion egoera honen amaierarako konpromisoaren beharra helarazteko. Giza Eskubideez ari gara. Etxera.



## OBJEKTIBOTIK



### Orduaren B aldea

Urdiango kanpandorrean barrena sartuta, inoiz ikusten ez den ikuspegia ikusten da, erlojuaren atzealdea. Bonbilla txiki batek pizten du gauero leku guztietara garaiz iristen laguntzen gaituen tresna, geroz eta gutxiago begiratzen duguna.

# guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

[www.guaixe.us](http://www.guaixe.us)

#### GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika  
[info@gkomunikazioa.us](mailto:info@gkomunikazioa.us)  
 948 564 275 (3 luzapena)  
 619 821 436  
 Ainhua Etxeberria Pikabera  
[gk@gkomunikazioa.us](mailto:gk@gkomunikazioa.us)  
 618 640 056

#### Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez  
[admin@guaixe.us](mailto:admin@guaixe.us)

#### Zuzentzailea:

Maite Iparragirre Astiz

#### Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

# Mank

s a k a n a

## BAZKIDEAK



#### Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa  
[guaixe@guaixe.us](mailto:guaixe@guaixe.us)

#### Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa  
[kirrolak@guaixe.us](mailto:kirrolak@guaixe.us)  
 eta Erkuden Ruiz Barroso  
[kultura@guaixe.us](mailto:kultura@guaixe.us)

#### Maketatzailea:

lune Trecet Obeso  
[maketazioa@guaixe.us](mailto:maketazioa@guaixe.us)

#### Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano  
[publi@guaixe.us](mailto:publi@guaixe.us)

#### Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde  
[fundazioa@guaixe.us](mailto:fundazioa@guaixe.us)

#### ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.  
 31800 Altsasu  
 948 564 275  
 618 882 675



Gobierno de Navarra  
 Nafarroako Gobernua



Sakanako Bizikleta Eguneko tropela ibarrean barna bidea egiten. ARTXIBOA

# Bizikleta bidearen proiektua egina dago

Irurtzun eta Agurain lotuko dituen bizikleta bideko lanak egiteko deialdia egin zuen Arabako Foru Aldundiak joan zen astean. Mank-ek aurki gauza bera egingen du. Sakanan bidea egokitzeko 1,97 milioiko inbertsioa egingen da

## SAKANA

Bizikletan ibiltzeko 63 kilometro bidea izanen da etorkizuneari irurtzun eta Agurain artean. Hori etako 16,8 km Araban daude, Egino, Zalduondo, Mezkoa eta Aguraingo lurretan. Arabako Foru Aldundiak bidearen proiektua egin ondoren, lanak emateko deialdia egin du. Foru Aldundiak jakinarazi duenez, lanak egiteko ahalik eta lur mugimendu gutxien egingen dituzte, ibilbidea lurraldearen morfologiara eta topografiara egokituko baitute. Hori egiteko hondakinak kendu, landa bideetako zorua eta drainatzeak trinkotu, eta zuhaixkak eta bestelako elementu vegetalak landatuko dituzte. Gainera, bizikletendako bi aparkaleku ziur eta bizikleta elektrikoetarako bi karga puntu jarriko dituzte bidean.

Sakanako Garapen Agentziako turismo teknikari Paki Urbitarte Cabrerak jakinarazi duenez, "exekuzio fasean sartzeaz gaude... Eraikitza proiektuaren erre-

dakzioa egina dugu jada. Orain behar diren baimenak tramitatzen ari gara, eta exekuzioa aurki hastea aurreikusten dugu". Urbitartek gogorarazi du lanak finantzatzeko bi diru iturri daudela. Alde batetik, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioak milioi bat euroko zuzeneko dirulaguntza. Diru horren 300.000 euro Arabako

zatia egiteko dira, eta gainontzeko 700.000 euroak, berriz, Sakanako zatirako. Diru hori Estatu-ko aurrekontuetatik jaso da, EH Bilduk aurkeztutako emendakin bati esker.

Baina diru hori ez da nahikoa izanen Sakanako lanak egin ahal izateko eta Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko Next Generation EU funtsetik beste milioi bat jasoko da, Helmugetako Jasangarritasun Turistikoko Planen barruan. Urbitartek azaldu duenez, bi diru iturriek "epeak markatuko dizkigute". Guztira 1,97 milioi euro izanen dira.

Eraikitzeaz den bideak sakan-darren herri arteko mugikortasuna errazteaz aparte, EuroVelo 1 ibilbidearen parte izanen da. Norvegia eta Portugal lotzen ditu EuroVelo 1 ibilbideak kontinentearen alde atlantiarretik, baita Baiona, Donostia eta Iruñea ere. Azken hori, besteak beste, Plazaolako bide berdearen bidez egiten du.

## Kanpina sariketan

Espainiako Kanpinen Federazioak IV. Kanpinen Gala antolatu du Madrilan, azaroaren 16an. Bederatzi mailetan sariak banatuko dira, bakoitzean hiru finalista daude. Etxarri Aranazkoa ostatu originalagoa duen kanpina mailan da finalista.



## UTZUBARTXOREN TXOKOA

Kaixo! Utzubartxo naiz, urtero martxo aldera Arbizuko UtzubarEKOgunera hurbiltzen naizen sai edo putre zuria. Sakanan hilabete batzuk pasatzen ditudanez, tarte horretan Sakanako Mankomunitatearen Hondakin Zerbitzuko mezulari bihurtuko naiz.

Nire egonaldia Sakanan amaitu egin da. Nahiz eta hemen gustora egon toki beroagoetara joateko garaia heldu zait. Oso gustora ibili naiz zuen artean eta hainbat ekintza egin dituzuela ikusi dut.

Hala ere, azken aste hau zuekin pasako dut, arroparen inguruko bi tailer baitituzue Sakanan:

- Urriaren 26an, Arropatruk. Altsasuko Gure Etxean 17:00-20:00 bitarte gauzatuko den arropak elkarbanatzeko espazio.
- Urriaren 28an, arropak konpontzeko eta eraldatzeko espazioa Irurtzongo Pikuxarren, 10:00-14:00 bitarte.

Honelako ekintzak ezinbestekoak zaizkigu. Arropa-jantzi bakoitzak kostu esanguratsua du ingurumenarentzat eta giza osasunarentzat. Ehungintza munduko bigarren industria kutsagarriena da, petrolio-industriaren ondoren. Munduko karbono-isurketen % 10aren erantzule da eta kalkulatu da uraren kutsaduraren % 20 ehunen tindaketatik eta tratamendutik datorrela.

Bitartean, arropa berria etengabe erosten jarraitzea ez da jasangarria, bai ordea daukaguna elkarbanatu eta konpontzeko kulturaren barneratzeaz bidea egitea.

Nire bidairako udarako arropa eroso bilatzera hurbilduko naiz Altsasu eta Irurtzuneran. Badaukazu negua pasatzeko arroparik? Edo baliagarria izan dezakezun janzkirik aurkitzeko ilusiorik? Hala bada, bi data ditugu mundu berri honi atea irekitzeko!

**Mank**  
s a k a n a



Financiado por el  
Fondo de Residuos  
Municipales Funtziak  
Finantzatua



Gobierno de Navarra  
Nafarroako Gobernua

*Utzubartxoren Txokoa Nafarroako Hondakin Funtziak finantzatu du. Hondakin Funtzi berezi ez diren hondakinak zabortegian isurtzeagatik ordaintzen den zerga baten bitartez jasotako diruarekin hornitzen da.*



# Euskaraldia eraginkorra dela erakutsi du ikerketak

2022ko ariketaren inguruko ikerketa datuek diotenez, Euskaraldian parte hartzaileen bi herenek hizkuntza ohitura batzuk aldatu dituzte. Parte hartzaileak berriro aritzeko prest azaldu dira. Antolatzaileak gogoeta prozesua egiten ari dira

## SAKANA

Euskaraldiaren hirugarren edizioa 2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra egin zen. Aurreko edizioetan bezala, azken horretan ere parte hartzaileen inguruko ikerketa lan sakona egin zen. Eusko Jaurlaritzaren, Nafarroako Gobernuaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren enkarguz, Siadecok, norbanakoetan eta ariguneez bitartez, entitateetan Euskaraldiak izan duen eragina aztertu du. Haren ondorioak Bilbon ezagutarazi zituzten atzo.

Goiatz Urkijok Euskaraldiko koordinatzaileak esan zuenez, "ikerketak baieztatu du ariketa gizartean normalizatu, finkatu eta egonkortu dela". Izan ere, Euskaraldia ezaguna da gizartean, rola hizkuntza jokaerakin lotzen dira (%60,2k; hala ere, badira, oraindik, gaitasunarekin lotzen dutenak). Bestalde, "ariguneez funtzionamendua ondo ulertu da, oro har. Horrek dakar, besteak beste, parte hartzaileengan Euskaraldiak duen eragina areagotzea urtetik urtera: 2022an ariketan parte hartu zutenen bi herenek, intentsitate ezberdinetan bada ere, hizkuntza ohiturak aldatu dituzte. Eta hori, bereziki azpimarratzeko datua da" Euskaraldiko koordinazio mahaiko kideen ustez.

## Datuak

Siadeco entitateko Jon Arrugae-tak eta Unai Oartzunek ikerketaren inguruko hainbat datu eman zituzten. Euskaraldian 158.440 lagunek eman zuten izena, %77,6k ahobizi eta %22,4k, berriz, belarriprest. "Aurreko edizioarekiko %11,1eko jaitsiera izan zen. Gazteen izen emateak egin du bereziki behera eta gizonezkoen izen ematea ere jaitsi da. Adinaren arabera, eta unibertso potentziala kontutan hartuta, 35 eta 64 urte bitartekoan artean (%34,4) izan du arrakasta gehien 2022ko Euskaraldiak.



Erakundeetako, Euskaraldiko eta ikerketa egin duen enpresako kideak. UTZITAKOIA

## "ARIGUNEA BABESA DIRA, GEHIAGO DIRA TALDEAN BAKARKA BAINO EROSOAGO ARITU DIRENAK"

Gipuzkoan izan du hedadura gehien ariketak. Bestalde, 2022ko Euskaraldiko parte hartzaile gehienek (%81,9) aurreko edizio-ko rol bera hautatu zuten. Rola aldatu zuten artean, ahobizi roletik belarriprest rolera egin zuten gehienak (%6)".

Entitateei erreparatuta, 8.610 izan ziren arigune gisa izena eman zuten elkarte, lantegi eta bestelako erakundeak. Aurrekoarekin alderatuta, entitateen izen emateak %3,6 egin zuen gora (301 gehiago). "Euskaldunenak diren gune soziolinguistikoetan, proportzionalki handiagoa izan zen entitateen Euskaraldiko izen ematea; 10 entitatetik 5 baino gehiago (%56,8) hirugarren edo laugarren gune soziolinguistikoan kokatzen diren udalerritakoak dira".

Euskaraldiak entitate horietan izan zuen eraginari dagokionez,

"harreman mota guztietan, Euskaraldiaren hamabostaldiko erabilera datuak altuagoak dira, Euskaraldiaren aurreko egoerarekin alderatuta. Harremanak euskaraz edo euskaraz gehiago diren entitateen ehunekoak 6 eta 13 puntu bitarte igo zen. Euskaraldiaren ondoren ere datuak ariketa aurretik baino altuagoak mantentzen dira (4 eta 7 puntu bitarteko igoerarekin)".

## Balorazioak

Miren Dobaran Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuordeak azaldu zuenez, "Euskaraldia tresna egokia da euskararen erabilera sustatzeko". Nabarmendu zuenez, "parte hartzaileen bi herenek, intentsitate ezberdinetan bada ere, hizkuntza ohiturak aldatu dituzte. Eraginak, hala ere, badu inguruarekin zerikusia; izan ere, ia egoera guztietan, inguru zentratu eta euskaldunagoa izan, orduan eta gehiago egiten zen euskaraz Euskaraldiaren aurretik, eta gehiago egin da ondorenean ere; inguru erdaldunagoetan, ordea, Euskaraldiaren eragina gehiago nabaritu da, aldatu eta handiagoa izan da".

Dobaranen iritziz, "ariketaren eraginaren erakusle argia da elkarrizketa elebidunak izateko orduan parte hartzaileek egin duten aurrerapausoa, hala, %44,7tik %76,5era igo da bi hizkuntzetan ematen diren elkarrizketetan euskarari eusten diotenen portzentajea. Beste aldera, ikerketan parte hartu dutenentzat zailena izan da orain arte erdaraz ziren elkarrizketak euskaraz edo ele bitan izatea. Azken honetan, baina, errazagoa egin zaie jokabide hori hartzea Euskaraldiaren ondoren". Entitateen kasuan, Dobaranek nabarmendu zuen Euskaraldia bukatu eta handik ia bi hilabetera ariketa aurrekoak baino altuagoak dira erabilera datuak; "parte hartutako entitateen %31,3 lortu du hizkuntza ohiturak aldatzea. Entitateen %10ak erantzun du lortu duela euskara izatea entitateko hizkuntza nagusia; eta %21,3k erantzun du ordutik euskara gehiago erabiltzen dute".

Javier Arakama Euskarabideko zuzendari kudeatzaileak aipatu zuen ekimen masibo horren garrantzia: "edizio guztietan 150.000 izen ematek gora egon dira, eta hori asko da". Arakamak esan zuenez, "2022 honetan ariketak aurreko edizioetan baino inpartu txikiagoa izan duela uste dute norbanako zein entitateetako solaskideek". Baina, "aldi berean, lortzen da hizkuntza ohiturak aldatu eta mantentzea, eta ariketak laguntzen du euskaraz erosoago aritzeko aukerak sortzen. Eta Euskaraldia baliagarria da, baita ere, euskara agendan eta iruditerian kokatzeko, eta hala diote norbanako eta entitateetako arduradunek". Ikerketa aipatuz, esan zuenez, "mesedegarria da egunerokoan euskara gutxi erabiltzen duten partaideendako; euskara gehiago erabiltzeko aukera ematen die, Euskaraldiak dirauen bitartean ez ezik, baita ariketa bukatu ondoren ere".

Gaineratu zuenez, "ariguneez babesa eskaintzen dutela ondorioztatzen da ikerketatik, gehiago dira taldean bakarka baino erosoago aritu direnak. Ariguneez txaparra emateko lagungarri da, baina, antolatzaileek, baieztapen hori norbanakoetara zabaltzeko, aurreko ikerketek ere hori bera agerrarazten baitzuten: orokorrean ariketa erosoago egiten laguntzen du txapak.

## Hamar urte beteta, bueltan da Errigora auzolana

Eskaerak errigora.eus web orrian edo ohiko tokitan egin daitezke azaroaren 9ra arte

## SAKANA

Errigorak hamarkada bat bete du eta *Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka* kanpainarako 10 urte bete-bete leloa aukeratu dute. Natxi Aranburuk, Errigorako presidentek esan duenez, "bete-beteak izan dira 10 urteetan izandako lorpenak eta osatutako komunitatea. Bete-bete sentiarazten gaitu Errigorak, horren parte izateak. Komunitatea betetzen eta hunkitzen duten balioak direlako". Balio horiek hiru direla nabarmendu Aranburuk: "zubigintza: pertsona, lurralde eta ideia desberdinekin bat egitea. Bestetik, ekintza: hitzetan baino egiten dugunean aurkitzea sinesgarritasuna. eta, azkenik, ahalduntzea: txikitasunetik amets handia eskuratzeko gaitasuna badugula ikustea".

Agerraldiko Ibai Sueskunek gogorarazi duenez, "AEK, Ikastolak, Sortzen eta Agerraldiaren artean banatuko dira kanpainan banatuko diren saskien %25aren irabaziak. Ikastolen eta AEKren biziraupena bermatzeko eta hezkuntza sare publikoan D ereduari atek zabaltzeko 1.800.000 euro lortu dira 10 urte hauetan". Bestetik, Ibon Ollok, Aristu upategiko ekoizleak, gogorarazi du 5 ekoizle hasi zirela eta egun 23 direla. "Errigora Balioak zigiludunak, dira saketako produktu guzti-guztiak: Bertako lehengaiez ekoiztuta; nekazarietako harreman bidezkoak jasota; Gure ekoiztetxeetako euskara planen parte direnak eta gure eskuak auzolanetan aritu direla ziurtatzen dutenak".

Aurten Errigorak kutxa bakarreko eskaintza egin du, 50 euroko balio duena. "10 urte betetzen direnean lehenengoz Errigoraren kanpaina bat gauzatu zenetik, inoizko saski gehien banatu nahi ditugu, auzolanen jakina". Saski eskaera egiteko deia zabaltzeko Errigorakoek.

# BATU DITZAGUN GURE AHOTSAK

TEKNOLOGIARI  
EUSKARAZ  
IRAKASTEKO



**gaitu.eus**

Erronka berri bat dugu euskaldunok.  
Teknologiari eta adimen artifizialari euskara irakatsi behar diegu.  
Eta horretarako, milaka ahots behar ditugu.  
Mundu digitalean ere euskaraz bizi ahal gaitezen.

**Sartu webgunean eta eman zure ahotsa.**



Gobierno de Navarra  
Nafarroako Gobernua



Lehararen erakunde publikoa  
Office public de la langue basque

HIRUKO  
ITUNA  
3kn

euskaltzaileen  
topagunea





# Autonomoendako sari bat Larretarendako

Emma Larreta Alegre "autonomoa, eta kementsua. Zeren gaur egun autonomoa izateko ausarta izan behar da". Hala definitu du bere burua goinuaren saria jaso duen lakuntzarrak. 'InVISIBLES' "erronka ilusionagarriak" eman dio saria

**Alfredo Alvaro Igoa** LAKUNTZA

Nafarroako Gobernuak Lan Autonomoa Aitortzeko Sariak banatu zituen irailaren 30ean. Sari horiekin autonomoek Nafarroaren garapenari egiten dioten ekarpena aldarrikatu zuen. Hamabost maila zituen sariketak, eta saria jaso zuten artean dago Emma Larreta Alegre. Lakuntzarra desgaitasuna duten pertsonen enpresa esperientzia hobea kategorian saritu zuten. Larretari *InVISIBLES* ekimenak eman dio saria. Haren bidez, publikoarendako hausnarketarako eta prestakuntzarako gune bat sortu nahi du, genero indarkeriatatik bizirik iraun duenaren esperientzia oinarri hartuta.

Larretak azaldu duenez, "lanpostu finkoa utzi nuen ekimen honi ekiteko. Erronka polita izan da, baina ausarta. Sentipen pertsonalagatik egin dut. Gizartea hobetzeko nire ekarpena egin eta beste pertsona batzuk laguntzeko zorra nuela uste nuen". Beraz, "sariaz harronago". Bidean egindakoari "aitortza baita". Eta aitortza "pizgarria" izan da Larretarendako, "oso lan gogorra izan baita". Bere ideia batean oinarritzen da dena. "Proiektuari bakarrik eman diot itxura. Sendotasun oso ona hartu du".



Emma Larreta Alegrek kontseilariaren eskutik jaso zuen saria. espacio\_invisibles

Urte eta erdi egin du Larretak autonomo gisa. "Arantza sartua nuen. Aisialdian eta musutruk aritzen nintzen. Baina ekimen horrek energia, denbora eta ardua gehiago behar zituela sentitzen nuen, mimo eta baldintza egokietan egindako proiektu on eta oso bat egiteko". Etxekoei iritzia eskatu, oniritzia eta animoak jaso eta lanean eszedentzia eskatu zuen. Larreta jakitun da pertsonekin komunikatzeko dohaina duela.

Larretari autonomo izateak "askatasuna" eman dio. "Hobekien

uste duzun moduan kudeatzen duzu. Zeure burua garatu dezakezu. Adimena zorrotzarazten dizu. Familiarekin gehiago egiteko aukera eman dit". Aldi berean, "estres asko" ekarri dio autonomo izateak: "ezegonkortasun handia. Sustapenari, deiak egiteari, irakasleekin, ikastetxeetako zuzendareekin, berdintasun eta kultura teknikarekin eta udal ordezkarekin bilerak egiteari eskaintzen diodan ordukin lotuta dago. Ordu asko". Horregatik ulerkorra da ekintzaile izan nahi ez duen jendea-

rekin: "bertigo sentsazioaren modukoa da. Askoz erosoagoa da lanpostu batean egotea". Hala ere, uste du "bustiko" den "eta aurrera bultzatuko duen" jendea beharrezkoa dela.

Autonomo gisa bere burua "ederki asko" ikusten du Larretak: "Oso argi dut bide onean nagoela. Ongi egindako proiektu bat dut, zentzu handiz egina, egingarria da". Aurretik ere ekintzailea izana da lakuntzarra. "Izan ditudan negozioak beti ondo joan dira. Baina dudarik gabe, hau arrisku handienekoa da, ukitu daitekeen zerbait ez delako. Ez ditut gonak edo toma-teak saltzen. Zailagoa da, are gehiago ekonomia egoera zail honetan, aurrekontuak estu daudenean". Aurrera egiteko "konfiantza eta gogo" baditu. Ekintzaile izatera animatzearekin batera, ekintzaile izan nahi dutenei "ongi pentsatzeko eta aholku onak eskatzeko" aholkatu die. "Ezin dira proiektuak maitemindu. Gustukoa izan behar dute proiektua. Baina, jakina, beharrezkoa eta errentagarria izan behar du".

Bere proiektuari ekonomia forma ematea "oso-oso zaila" dela esan du Larretak. "Nik, batez ere, gazteekin lan egiten dut. Mundua eraldatzeko boterea bakarren batek badu, gure gazteria da", ziurtatu du. "Zuk azokan tomate ekologiko ederrak saltzen badituzu, produktua eta bere prezioa dituzu. Baina jendearen adimenarekin lan egiten duzunean, kontzientziak mugiarazten saiatzen zarenean... Dirua horretara bideratzea ikastetxe edo udal batean, aurrekontua kudeatzen duen pertsonaren esku dago, bere ideien eta pertsona edo herritar gisa duen bere gizarre inplikazioaren arabera-

koa da. Oso zaila da". Horregatik, berretsi du saria "bultzada" izan dela. Hilabeteetan beltz ikusi du egoera: "zeinek agindu dit niri saltsa hauetan sartzea".

**Aurrera egitea**

Autonomoa izatea zaila bada, are zailagoa da oraindik desgaitasuna izanda. "Besoetan mugikortasun mugatua dut, izugarri nekatzen naiz. Gidatzen ematen ditudan ordu guztiak eta bestelakoak niretako... Burua ziztu bizian doa, baina gorputzak esaten dizu: 'aizu, ez zaitez emozio-natu!' Eragozpena bada ere, ilusioa egiten dit, desgaitasuna duten pertsonak hor gaudela erakusten duelako, ekarpen handiak egin ditzakete. Kolektiboari ikusgarritasuna ematea niretako garrantzitsua da".

Larretak lana ahoz ahokoari esker lortzen duela azaldu du. Jendearen erantzuna "oso ona" izan dela esan du lakuntzarrak. "Aurreko ikasturtean egondako ikastetxeen %80an errepikatu dut. Proiektuak asko esaten du eta oso pozik nago". Esan duenez, saioetatik "bizi-bizi" ateratzen da, "horrek asko merezi du. 17-19 urte bitarteko gazteek sare sozialetan jarraitzen naute, haien gauzak kontatzen dizkirate, aholkua eskatzen didate. Lortzea 30 gazte nigan bi ordu zentratuta egotea lorpen handia da. Jarraitza animatzen nau". Jakinarazi duenez, Navarra Televisionen sari bat eskuratzeko hautagaia ere da.

**"EKINTZAILE IZAN NAHI DUTENEI: ONGI PENTSATU ETA AHOLKU ONAK ESKATU"**

**bertako**  
igogailuak | ascensores

**BENETAKO OROTARIKO ZERBITZUA**  
**100€-tik/hileko**

**IGOGAILUEN MANTENTZE-LANEN ESKAINTZA ZORROTZENA**

2.500 bezerok gugan dute konfiantza

848 87 09 17  
bertako.eus





Uharte Arakilgo elkartasun azoka atzean duela, Miren Ustarroz Goñi.

# "Benetan inklusiboa den herri bat nahi dugu"

**MIREN USTARROZ GOÑI** ZINEGOTZIA ETA UHARTEKO URAK TALDEKO KIDEA  
Elkartasun azokaren eta sortu berri den boluntario taldearen zergatiaz azalpenak eman ditu. Taldearekin harremanetan jartzeko udaletxera hots egin behar da

**Alfredo Alvaro Igoa** UHARTE ARAKIL  
Estreinako elkartasun azoka hartu zuen Uharte Arakilek lastailaren 12an. Azokan lortutako etekinak eskolaz kanpoko indartze akademikoa garatzeko sortu den boluntario taldeari, Uharteko Urak taldeari, eman zaizkio, material didaktikoa eros dezan.

**Elkartasun azoka, zergatik?**

Bai. Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuko Begoña Zestau Baraibarrekin hitz egin genuen. Aipatu zuen premiazkoa zela elkartasun azoka bat egitea, ba-

tetik, komunitatea sortzeko, jendearekin harremanak sendotzeko eta, bestetik, gizarte ekimenei bultzadaxoa emateko. Jendearen erantzuna ikaragarria izan da. Material asko bildu dugu. Bilketaren zati bat Marokoko

**"DENON ARTEAN PIXKA BAT JARRITA BIZITZAK GEHIAGO ERRAZ DITZAKEGULA IRUDITZEN ZAIGU"**

lurrikarak kaltetutakoei bidali genien. Beste zati bat, elkartasun azokarako gorde dugu. Asko bildu da. Oso pozik gaude.

**Azokarako zer eskatu zenuten?**

Etxean erabiltzen ez ditugun eta egoera onean dauden gauza horiei eman nahi genien bigarren bizitza bat; hainbeste ez sorrarazteko. Bestalde, egoera zaurgarrian dauden pertsona horiek ere eskubidea izateko edo errazago iristeko zenbait produktutara. Iruditu zitzaigun denon artean

pixka bat jarrita bizitzak gehiago erraz ditzakegula.

**Gure artean ere horrelakoak badaude eta ez ditugu ikusi nahi, ezta?**

Hori da hitza: nahia. Zeren, berez, egon badaude. Ekonomia doan bezala, prezioen igoera eta hori guztia kontuan hartuta, badauzkagu gure inguruan, gure aldamenean, pertsona asko benetan gorriak ikusten ari direnak. Behar adina jaten ez duen jendea, seguruenik lehenetsi behar direlako alokairuak edo gastu batzuk. Eta hori oso gogorra da.

**Zer jaso zenuten salgai jartzeko?**

Alde batetik, arropa asko daukagu, zapatak ere dezente, liburuak, bitxiak... Badago emakume komunitate bat oso-oso zoragarria dena eta ekarri dizkigute beste herrialde batzuetako pintxo eta janari goxo-goxoak. Tea ere bai. Eta gero gauza berezi bat-edo. "Guau!" efektu bat emateko Uharteko estoldetatik grabatutako poltsak pertsonalizatu ditugu. Haietan, Huarte alderantziz idatzita ikusi daiteke, estolden grabatuekin.

**Hori, zertarako?**

Jendea erakartzeko. Ez da beste ezer. Baizik eta Uhartean propioa egin duguna, eta Uharteko elkartasuna pixka bat bultzatzeko ekimen bat da. Nahi genuen pertsonalizatu, benetan esanez: "Uhartean gaude, oso harro gaude uhartekoak izateaz". Horretaz aparte, nahi dugu aldarrikatu: uhartekoak den-denok gara, beharrak dauzkatenak, behar gutxiago dauzkagunak eta guztiak.

**Komunitatea egiteko nahiari keinua?**

Herria egin nahi dugu. Eta nahi dugu herri bat inklusiboa, baina inklusiboa benetan, ez partxeatutako herri bat. Nahi dugu bere nortasunaz harro dagoen herri bat. Harrerako herri bat nahi dugu, herri sozial bat, nahi dugu bizigarria den herri bat. Denok izan behar ditugu begiak erne, ikusteko beharrak dauden horretan denoi tokatzen zaigula, eta denok daukagula ardura puntu bat.

**Uharteko Urak poltsetara mugatuko da, edo emaria izanen du?**

**"GURE ALDAMENEAN BENETAN GORRIAK IKUSTEN ARI DIREN PERTSONA ASKO DAUZKAGU"**

Baietz espero dut. Uhartek, berez, urarekin lotura handia dauka; ura zirrikitu guztietatik pasatzen den eta eraldatu egiten den gauza bat da. Iruditu zitzaigun oso poetikoa eta oso interesgarria. Marka hori hartu dugu gure ekimenaren ikur izan dadin.

**Poltsetatik harago doa, beraz.**

Elkartasun azoka honetatik aterako dugun diru hori *Uharteko Urak* izeneko ekimen bat bultzatzeko erabiliko da. Elkartu gara boluntario batzuk, Uharteko eskolaren inguruko gurasoak eta beste. Akademikoki jarraipena eta errefortzu akademikoa behar duten ikasleak hartuko ditugu eta saiaturako gara jarraipen hori egiten, edo indartze prozesu horiek abian jartzen. Zeren konturatu gara, nahiz eta guraso askok borondatea baduten, ez daude gaituta edo ez daukate gaitasunik curriculumaren hainbat atali erre egiteko. Iruditzen zaigu elkartasuna ere badela, norberak beretzako nahi duena, besteei ere eskaini ahal izatea.

**Atzean ez gelditzeko, integrazio-rako eta komunitatea egiteko.**

Bai. Eta, horretaz aparte, nik uste dut ere puntu egoista bat ere izan dezakeela. Zenbat eta maila orokor hobea dagoen gela batean, denon seme-alabak askoz hobeto egongo dira. Eta nik nahi ditudan bizilagunak dira erabat ahaldundutako eta erabateko eta osoko bizilagunak.

**Maila akademikoari erreparatuko diozue. Horretan geldituko da?**

Hori hasiera baino ez da. Udalak badauzka bi ekimen hor: Alde batetik, sortu dugu talde bat euskarari errefortzua emateko. Eta beste gauza bat izango da boluntario talde hori, errefortzu akademikoan zentratuko dena. Eta, noski, akademikoa izeberg baten puntatxo bat da. Horrekin nahi duguna da beraiek parte sentitu daitezen. Behar horiek pixka bat integratu, barneratu eta gure egin.

**Boluntarioek ere errealitate batzuk ezagutzeko aukera izanen dute.**

Bai, gure artean elkartzeko eta beste mota bateko harreman oso aberatsak sortzeko.

**Boluntarioak badituzue?**

Gutxi daukagu zoritxarrez. Boluntarioak behar ditugu. Inork nahiko balu, ongi etorria izanen da. Pentsatzen ari naiz erretirata dauden hainbat irakasle, edo horrekin esperientzia duten pertsonengan.



Garikoitz Elizalde, Maider Ondarra, Aritz Gonzalez eta Jose Javier Oses, Ondalankoopeko kideak prestatutako jakiekin.

# Ontziratutako jana, bertako produktuekin egina

Ondalankoop mikrokooperatibak bere egoitza, sukaldea, Burlatatik Etxarri Aranatzera aldatu du. Bere burua ezagutzera emateko prestatzen dituzten jakien dastaketa eskaini zuen plazan lastailaren 12an. Hain justu hiru urte bete zituzten egunean

## DUELA 25 URTE...



### Idea lehiaketa Olaztikiko kiroldegirako

Olatzagutiko Udalak kiroldegia egiteko ideia lehiaketa deitu zuen. Hiru sari banatuko zituen. Udalaren asmoa zen kirol azpiegiturak honako espazioak izatea: erabilera anitzeko pista, materiala gordetzeko bi biltegi, aldagela bi dutxa eta komunekin, begiraleendako bi aldagela, bulegoa, botikina, garbiketara gela, gimnasioa muskulazio eta mantentze eremuekin, 300 pertsonarendako eremua, taberna eta ikusleendako komunak. Udalak 200 milioi pezeta zituen (1.202.024 euro) horiek guztiak eraikitzeko.

**Alfredo Alvaro Igoa** ETXARRI ARANATZ Elikadura burujabetasunaren aldeko proiektutzat du bere burua Ondalankoopek. Sukaldea aurretik Burlatan zuten. Uholdeek sukaldea hondatu zuten. Sukalde onik lortu ez dutelako lekualdatu dira Etxarri Aranatzera. "Antolatutako dastaketarekin gure lanaren berri eman nahi genien etxarriarrei", azaldu du kooperatibako kide Garikoitz Elizalde Ekisoainek. Proiektua Iruñea, Burlata, San Martin Unx eta Tafalla inguruan abiarazi zuten. "Eta hemen gaudenez, proiektua Sakanara zabalduko dugu. Jendeak interesa badu, banaketa puntu bat sortuko dugu", gaineratu du Elizalde. Iruñerrian prestatutako janari ontziak banatzeko hainbat modu dituzte: bazkide bakoitzari berea hozkailuak dituen egoitzan utzita, dena txikiak...

Elikadura arloko kooperatibako kideak azaldu duenez, "ideia zen herri eta hirien arteko sinergiak sustatzea. Hirietan azkar bizi dira, beste behar batzuk sortzen dira, eta herrietatik elikatzen dira beti, barazkiak, haragia... Dependentsia dute. Guk ekoizleak diren herri txiki horiei, eta ekoizleei beraiei, hirian aukera emanez indarra eman nahi diegu; ezagutarazteko eta harremanak sortzeko", azaldu du.

Zubi lan hori egiteko Ondalankoop ekoizle txikien produktuak jaso eta hirian eta herrietan zerbitzua ematen hasi ziren. "Baina herrietan, beharbada, arduratsua jaten da, beste aukera batzuk dituzte. Hirietan, azkartasun horretan murgilduta dagoela, jendeak enpresa handiei edo beste motatako enpresetan uzten dute bere hilabeteko diru asko. Ekoizle txikien lan hori hiritarrei gerturatzeko", argitu du kooperatibistak. Horretarako, ekoizle txikien produktuak jaso, sukaldean prestatu eta asterako hamar plateraz osatutako menua osatzen dute Ondalankoop mikrokooperatibako kideek. Ondoren haien banaketa puntuetan uzten dituzte prestatutako jaki horiek. Ostirala izaten da jatekoak jasotzeko eguna.

### Jatekoek

Ondalankoopek zerbitzua jaso nahi dutenek izena eman behar dute aurretik. Horretarako, kooperatibaren posta elektronikora mezua bidali behar da izen-abizenak, eta norberaren e-posta eta telefono zenbakia eman. Haiek bueltan pasahitza eta erabiltzaile izena bidaliko dituzte eta, horiekin web orrian eskaera egiteko aukera izanen da. Han asteko menuaren berri ematen dute. Jasotze puntua zehaztu behar zaie, jakina.

Astean 30 euroko gutxieneko eskaera bat egin behar da. "Diru horrekin lau eta sei janari ontzi artean eskuratzen dira. Ontzi bakoitzak bere prezioa du. Ahalik eta justuen izan dadila saiatzen gara. Ontzien prezioa 5 eta 8 euro artekoa da, osagaien salneurriak

**"BEZEROEN PROFILA HASIERAN PENTSATZEN GENUENA BAINO ASKOZ ZABALAGOA DA"**

ere desberdinak direlako", azaldu du Ondalankoopeko kideak. Bi aste barrurako menuaren berri bidaltzen dute, eta jasotako eskaeraren arabera prestatzen dituzte jakiak. "Horrela, bakoitzari dagokiona prestatzen dugu, ez dugu behar baino janari gehiago egiten, eta ez da soberakinik sortzen", argitu du kooperatibako kideak.

Elizalde aitortu zuenez, beraien menuetan ez dago ez haragi ez arrain askorik, "askoz gehiago dira zerealekin eta barazkiekin egindakoak". Ideia egiteko aste honetako menuaren zati baten berri eman du elikadura kooperatibako kideak: zerbait egosia arrozarekin; txitxirio entsalada ziazerbekin; txindillak txorizo eta piperrekin; moxala gisatua; haragi-bolak; bakailaoz betetako piperrak... "Osagai guztiak tokiko produktuak dira. Orain egoitza Etxarri Aranatzeko dugula Sakanako ekoizleengana joko dugu produktu bila. Ekoizleekin elkarlana edo merkataritza harremanak sustatzen ari gara orain. Ideia da hemen erostea eta hemen produzitzea, bertako produktuekin", jakinarazi du Elizalde.

### Aldea

Merkatuan dauden gainontzeko eskaintzez bereizten dituena Ondalankoopek ontxi bakoitzak duen "karga ideologiko handia" dela gaztigatu du Elizalde, "jatea ekintza politiko bezala ulertzen dugu. Jabetu behar dugu gure soldatiko euro bakoitza nora doan. Ekoizle eta proiektu txikiak badoa, askoz hobeto makroindustria handi horiek gizentzea baino", azpimarratu du kooperatibako kideak. "Guk prestatzen ditugunak ez dute kontserbagaririk. Ahalik eta produktu ekologikoenekin lan egiten dugu.... Beste industria horiek sortzen duten janari horiek baino arduratsua gara", ziurtatu du Elizalde.

Ondalankoopeko bezeroez galdetuta, Elizalde esan duenez, "bezeroen profila hasieran pentsatzen genuena baino askoz zabalagoa da. Hasieran, kontzientziatuagoa zen pertsonendako izanen zela uste genuen. Baina etorri da jendea beharagatik, proiektuaren karga ezagutu delako... Hasieran, batik-bat, gazteak ziren. Orain familia, adineko eta norbanakoetara zabaldu da. Esparru zabala hartzen du".



Deabrua  
adintsu,  
horregatik  
jakintsu

...EDO EZ?



**HARPIDETU ZURE HERRIKO  
ALDIZKARIAN eta jaso  
liburu-sorta bat doan**

\* Harpidetzen diren lehen 10 lagunek hiru liburu  
doan dituen sorta bat jasoko dute.

Gobierno  
de Navarra  Nafarroako  
Gobernua

  
Asociación de la  
Prensa Local de Navarra  
Nafarroako Tokiko  
Prentsaren Elkartea



# FESTAK

## ALTSASU FERIAK

### URRIAK 20 Ostirala

18:00 Haurren txokoa, Gure Etxean.

Altsasuko Peñak-ek antolatuta.

19:30 XII. Arte Azokaren mustutzea, Iortia kultur gunearen erakusketa aretoan.

Artebide elkarteak antolatuta.

Pilota jaialdia, Burunda frontoian.

ASPEK eta Baikok antolatuta.

Lau t'erdi Promozio Liga:

Eskiroz / Exposito

Binaka:

Elezkano II - Martija / Dario - Zabaleta

Txokolatada, Gure Etxean.

Altsasuko Peñak-ek antolatuta.

23:00 Kontzertuak: Ostikoka eta Ganibet taldeak, gaztetxean. Altsasuko GKSek antolatuta.

### URRIAK 21 Larunbata

11:30 Kalejira erraldoi eta buruhandiekien eta Altsasuko eta Etxarri Aranazko gaiteroekin, Intxostiapuntatik hasita.

12:30 Altsasuko Musika eta Dantza Udal Eskolako fanfarrearekin, kalejira, Intxostiapuntatik hasita.

13:00 Trikibermuta.

Altsasuko Peñak-ek antolatuta.

15:00 Peñen bazkaria, Zelandi frontoian.

Altsasuko Peñak-ek antolatuta.

16:30 Peñen kafea eta maillot banaketa, Zelandi frontoian.

Altsasuko Peñak-ek antolatuta.



**ARBIZU** Jendetza bildu zen Arbizuko Txistor Egunean. Kaleko postuetan mugimendua egon zen, eta txistor pintxo eta ardoa dastatzeko tarteka itxaron behar izan zen.

## SAKANAKO ERRALDOIAK

### Kolorereta itzazu



ESKUALDEKO  
LIBURU-DENDA HAJETAN SALGAU:  
BILTZULIN, ELUSTONDO ETA MARTXUETA  
ETXARRI ARANAZ, KAXETA  
ALTSASU, ARKATZ ETA LIBURUNDA



Altsasuko Peñak-ek antolatuta.

17:30 Elkartepoteoa (Lagun Onak eta Kukurrek), kalejira eta merienda.

Altsasuko Peñak-ek antolatuta.

18:00 Sakanako XXIII. Herri Kirol eguna, Iortia kultur guneko plazan. Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatuta.

19:30-22:00 Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia, Foru plazan.

20:00 Peñen jaitsiera, Altsasuko Peñak-ek antolatuta, Zumalakarregi plazatik Foru plazara.

22:00 Zezensuzkoa, Foru plazan.

23:30-02:00 Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia, Foru plazan.

00:00 Peñen igoera, Foru plazatik Zumalakarregi plazara.

Altsasuko Peñak-ek antolatuta.

### URRIAK 22 Igandea

09:00-14:30 Zaldi lehiaketako zaldien erakusketa, Zelai kalean. Ardi latxen erakusketa, Ferialeku kalean.

Behi erakusketa, Ferialeku kalean.

Nekazaritzako elikagaien azoka: pate, ezti, babarrunak, ogia, pastelak, gazta, kontserbak, txistorra, taloak, txokolateak, hestebeteak eta abar, Gartzia Ximenez kalean.

Artisautza azoka: bitxiak, poltsak, arropa, zurezko jostailuak, xaboi naturalak, saskigintza eta abar, Foru plazan.

Erreminten eta makinien erakusketa, Otadiko Santokristo inguruan.

Azoka txikia: arropak, oinetakoak eta abar, Baratzekobide plazan. Mikologia erakusketa, Garbitoki eraikinean.

Altsasuko Mikologia Elkartek antolatuta.

XXXV. Argazki Rallya.

Altsasuko Mendigoizaleak taldeak antolatuta.

Argazki erakusketa, Gure Etxean. Sakanako XII. Arte Azoka, Iortia kultur guneko plazan.

Artebide Taldeak antolatuta.

Nafarroako VII. Edizioaren Azoka, Foru plazan.

11:30-13:30 Altsasuko Zaldi Lehiaketaren desfilea eta sari banaketa, Zelai kalean.

12:30 Altsasuko Txistulariekin kalejira.

17:00 Erremonte jaialdia, Burunda frontoian.

Remonte Euskal Jai Berri Fundazioak antolatuta.

Lehenengo partidua: 30 tantotara Otxandorena - Leatxe / Osas - Ion Bigarren partidua: 35 tantotara Jabalera - Agirrezabala / Martxin III - Otano

19:00 Puro Relajo taldearen kontzertua, Foru plazan.

21:30 Zezensuzkoa, Foru plazan.

## LAKUNTZA HERRITIK TIRA

### URRIAK 27 Ostirala

18:00 Herritik tira: hasiera, Zarata txaranga, Lakuntzako erraldoi eta buruhandien konpartsa, udaletxean.

19:00 Ilunabarra dantza ikuskizuna, plazan.

20:00 Auzatea, plazan.

20:00-23:00 Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia, plazan.

20:30 Zezensuzkoa.



**ALTSASU** Elikagaien azoka izanen da Gartzia Ximenez kalean.

ARTXIBOA





Xabier Zelaia, eskuinean, Oihan Zelaia ilobarekin behorrak zaintzen. UTZITAKOA

# "Altsasuko feria egun polita da guretako"

**XABIER ZELAIA ELORZA ABELTZAINA**

Familiatik datorkio artzaintza, eta duela hamabost bat urte profesionalki abeltzain egin zen altsasuarra. Aurten lehenengo aldiz behorrak erakutsiko ditu ferian

**A. A. I. eta E. R. B.** ALTSASU

Abeltzaintzak hitzordu garrantzitsua du igandean Altsasun: Feria eguna izanen da. Aziendaren presentziak Altsasu itxuraldatuko du, eta azienda erakusgai izanen duen abeltzaintetako bat Xabier Zelaia Elorza altsasuarra izanen da. Ardiak "betidanik" atera izan ditu azokara, baina aurten lehenengo aldiz parte hartuko du abeltzain gazteak Zelai kaleko Zaldi erakusketa eta lehiaketan.

**Altsasuko feria altsasuar batendako egun handia, ezta?**

Ganadua gustatzen zaigunondako eta daukagunondako egun polita da. Betidanik egun polita izan da. Gure aitona-amonak gustura etortzen ziren ferietara; markatuta daukagun egun bat da. Ezagun asko etortzen dira, eta gosaltzera eta bazkaltzera biltzen gara.

**Azienda ateratzen duzun estreina-ko aldia da?**

Ardiak ia betidanik atera ditut. Txikitatik ikusi dut osaba-izebek ateratzen zituztela, garai hartan lehiaketa zegoen, eta parte hartzen zuten. Ardi latxa, betiko artaldekoak. Behorrak lehenen-

go aldiz aterako ditugu. Orain dela bi urte erosi nituen, eta ateratzera animatu naiz. Auritz-Burgete arrazakoak dira.

**Behorrak Zelai kalean eta ardiak Otadiko Kristo Deuna kaleko plaza egongo dira. Herriko punta batetik bestera.**

Ez dakit nola moldatuko naizen, lagun batzuk etorriko dira laguntzera. Azkenean, ardiak bakarrik erakusketa da, orduan goizean eramango ditugu eta hor egongo dira. Behorrena lehiaketa da, eta orduan behorren inguruan denbora gehiago egongo gara.

**Noiztik zara abeltzain?**

Abeltzain 19 urterekin hasi nintzen, eta 34 urte ditut, beraz, hamabost bat urte. Baina aurretik osabari laguntzen ibili naiz, txikitatik. Artzaina naiz, horretaz bizi naiz, eta ardiek jaten ez di-

**"ABELTZAINZAREN ETA FERIAREN ATZETIK LAN IZUGARRIA DAGO, ETA EZ DA BALORATZEN"**

tuzten larreak eta belardiak aprobetxatzeko, behorrak jarri ditugu. Gustuko ditudalako ere bai.

**Zergatik sartu zinen abeltzain?**

Etxean ezagutu dudalako. Aitaren osaba bat artzaina zen eta da, oraindik barruan daramalako artzaina izate hori. Etxean ikusi dut, gustatu zitzaidan eta osabarekin hasi nintzen. 2017an ukulu bat egin genuen ardi gehiagorendako, gaur egungo beharretara egokituta, eta hartan nabil ni. Gauzak larri daude, gero eta gehiago. Espekulazioak oztopoak jartzen dizkigu; Covid-arekin hasi zen, gero Ukraniako gerra delakoa... Pentsuaren prezioak bikoiztu egin dira eta iazko lehortearrekin bi edo hiru urte daramatzagu burua altxatu gabe. Baina, aurrera goaz, gogotsu.

**Abeltzain familiakoa zara, baina artzain sartzeko zerbait ikasi zenuen?**

Artzain eskolan egon nintzen eta gero praktikak etxe batean egin nituen. Dakidana etxean ikasitakoa da, artaldearekin txikitatik bizi izan dut eta maneja nolakoa den ikusi dut; hemengo baliabideak eta abar.

**Nola gogoratzen duzu modu profesionalean hasi zinen garaia?**

Errelebo bat bezala izan zen, osabarekin lanean bainebilen. Ez nuen diferentzia handia nabaritu. Denbora gehiagopasatzen dut bakarrik eta erabakiak nik hartzen ditut, baina ahal duteanean etxeok, anaiak eta asko laguntzen didate. Ez dut diferentzia handirik nabaritzen.

**Gabonetako kanpainarako prestatzen ari zara?**

Ez, nik urtarrilean izaten ditut arkumeak. Esnea saltzen dut.

**Orain ardiak Urbasan dituzu?**

Bai, etxola bat dugu Urbasan eta artaldea bertan dago. Batzuk jaisten hasi gara, baina berandu gabiltza. Luzatzen ari da gauza. Urtearen arabera pentsu osagarria ematen diegu, baina aurten urtea ongi doa. Udaberriari hasi eta denbora luzean

euria egin du, horregatik aurten pozik gaude; ezin gara ke-xatu.

**Pentsuaren prezioa igo dela aipatu duzu.**

Bikoiztu egin da, bai; eta lehortearrekin belarraren prezioa ere igo da. Administrazioak dirulaguntza batzuk eman zituen, baina ez dira asko. Orain ari gara jasotzen iazko lehortearren dirulaguntzak, urtebete geroago.

**Altsasuko ferietan abeltzainez gain, abereak ikustera datorren jende asko ere biltzen da. Zer ikusi behar dute?**

Atzetik lan izugarria dagoela, eta hori ez da baloratzen. Gazta bat edo haragia erostean, ahalegin bat egin behar du jendeak: hemengo erosteko ahalegina, hemen hazitakoa. Bertako produktuak kontsumitzera animatu nahi dut jendea.

Altsasuko  
**FERIA**  
2023  
URRIAK 22 IGANDEA

ANTOLAKUNTZA ARGAZOLA GORKA GOMEZ July 2022

BABESLETTZA

LACUNZA50 Unamuno Gobierno de Navarra Naturako Gobernuak 2020

Dirutza: 6M



## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / [kultura@guaixe.eus](mailto:kultura@guaixe.eus)

## OSTIRALA 20

**ETXARRI ARANATZ Pala partidak.**

Gure Pilota elkartearen Nafar Eskola Jokoen partidak: Goñi - Beraza / Mendiburu - Marroyo; Uribe - Jimenez / Aldaz - Bazarrrika; Lohiarte - Murugarren / Goikoetxea - Zubiri.  
**18:30ean, Euskalerriri pilotalekuan.**

**URDIAIN Ipuin erakusketa.**

Aniztasunaren aldeko ipuinen maleta kuxkuxeatzen, Skolaeko maleta ibiltariak ezagutu eta kuxkuxeatzeko aukera. *Askotariko Sakana. Aniztasuna erein sexu eta genero aniztasunaren inguruko programaren barruan, Sakanako Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzuak eta Nafarroako Gobernuako LGTBI+ Berdintasunerako Zuzendariordeztaren laguntzarekin.*  
**18:30ean, liburutegian.**

## LARUNBATA 21

**LAKUNTZA Mendi irteera.**

*Zabalarte eguna:* Lakuntzako ganbelen ibilbidea. Ondoren, bazkaria Lakuntzako Pertza elkartearen.  
**08:30ean, plazatik.**

**ETXARRI ARANATZ Pala partidak.**

Gure Pilota elkartearen Nafar Eskola Jokoen partidak: Moreno - Aldasoro / Goyenaga - Mencos; Marroyo - Salinas / Astiz - Iriarte; San Martin - Gastearena / Glaria - Guerra; Garmendia - Campos / Erro - Zia; Larraza - Lazkoz / Olza - Nuin; Beltza - Gintzarain / Zabalza - Arrosagaray; Astiz - Erdozia - Alonso - Esparza.  
**09:30ean, Euskalerriri pilotalekuan.**

**ALTSASU Tailerra.**

*Familia eskola: Pertsonarengan zentratutako arretea integrala* tailerra, Biak Bat elkarteak antolatuta.

**10:00etatik 12:00etara, Biak Baten egoitzan.**

**UHARTE ARAKIL Festa.**

Urruzegifest, Uharthe Arakilgo Gazte Asanbladak antolatuta.

**18:00 Karro poteoa.**

**20:00 Afaria.**

**21:00 Kontzertuak:** Shibuya talde uhartearra, Basajaun iruindarra eta Mendikoa talde uhartearra.

**01:00-04:00** Musika, plazan.

**ALTSASU Ikuskizuna.**

Golden Apple Quartet taldearen *Vamos que nos vamos* musika ikuskizuna (azken sarrerak).

**19:30ean, Iortia kultur gunean.**

**ETXARRI ARANATZ Dantza eta zinema ikuskizuna.**

SCNO2 eta Dantzas konpainien *Basotik Itsasora 2.0* dantza eta zinema ikuskizuna, *Sendaberri Paisaia eszeniko berriak* programaren barruan.

**18:00etan, kultur etxean.**

## ASTEARTEA 24

**LAKUNTZA Joskintza tailerra.**

*Haurrendako joskintza sortzailea* tailerra antolatuta du Sakanako Mankomunitateak, joskintza tailerren barruan.

**16:30etik 18:30era, Sakanako Mankomunitateko egoitzan.**

**SATRUSTEGI Topaketa.**

Bertako barietateak programan parte hartzen dutenen topaketa: hazien garbiketa, sailkatzea eta gordetzea hauen kontserbaziorako.

**18:00etan, elkartearen.**

**OLAZTI Hitzaldia.**

*¿Por qué se retrasa el habla de los niños y niñas? ¿Qué debemos hacer?* Maite Redondo Neure klinikako neuropsikologoaren

## ZINEMA

## ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

**Oppenheimer** gaurkotasunezko filmaren emanaldia  
 Igandea 22: 19:30

**Urak aske** film dokumentalaren emanaldia, Filmoteka Nafarroan programaren barruan  
 Astelehena 23: 19:00

**Jeanne du Barry** gaurkotasunezko filmaren emanaldia  
 Osteguna 26: 19:00

**Gran Hotel Nazareno Txuspo Poyoren** filmaren emanaldia, XII. Arte Azokaren barruan  
 Ostirala 27: 19:30

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO TXIKIAN

**Cerrar los ojos** zineforum filmaren emanaldia  
 Osteguna 26: 19:00

hitzaldia, gaztelaniaz, Sakanako Mankomunitateak eta Olaztiko Udalak antolatuta. Familiei eta hezkuntzako profesionaleri zuzenduta.

**18:00etan, kultur etxean.**

## ASTEAZKENA 25


**ARBIZU Ikastaroa.**

*Argazkilaritza mugikorrean Sarean Euskaraz* egitasmoaren ikastaroa.  
**18:00etatik 20:00etara, liburutegian.**

## OSTEGUNA 26

**ALTSASU Azoka.**

*Arropatruk:* egoera onean dagoen arropa garbia eraman, Sakanako Mankomunitateak antolatuta eta Nafarroako Gobernuak Hondakinen Funtzak finantzatuta.  
**17:00etatik 20:00etara, Gure Etxean.**



**IRURTZUN, ETXARRI ARANATZ ETA ALTSASU Emozio ongizatea irudietan** argazki lehiaketaren irudien erakusketa, Ziordiko, Olaztiko eta Altsasuko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek antolatuta. Urriaren amaiera arte.

*Osasun etxeetan eta gizarte zerbitzuetako egoitzetan.*

**IRURTZUN Nire barnekaldiak Koldo Arnanz Zufiaurre** artista altsasuarraren margolanen erakusketa.

*Urriaren 31ra arte. Pikuxar tabernan.*



**UHARTE ARAKIL Nievea Ceniza** *Hazturaren kontrako kronikak* Ivan Benitez argazkilariaren argazki erakusketa.

*Urriaren 29ra arte. Udaletxe plazan.*



**LAKUNTZA Ane Zubeldia Morras** marrazkigilearen erakusketa. *Sorginak* tabernan.



**ALTSASU. XII. Arte Azoka** erakusketa, Artebide elkarteak antolatuta.

*Urriaren 20tik azaroaren 20ra. Astelehenetik ostiralera 17:00etik 20:00etara, larunbatetan ikuskizuna hasi baino ordu bat lehenago, igandetan 18:30etik 19:30era. Iortia kultur gunearen erakusketa aretoan.*

**Erviti** aluminio PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | [info@aluminioserviti.es](mailto:info@aluminioserviti.es)

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

Etxe zaharren berriztatze eta birgaitzea



**OLAZI Tailerra.**

Atrapavientos elkartearen *Plantadores de historias* tailerra, Hazien liburutegiak programaren barruan.  
17:00etan, liburutegian.

**OSTIRALA 27****LAKUNTZA Ikastaroa.**

Hipopresibo ikastaroa: zoru pelbikoa eta sabelaren giharra indartzeko ariketa abdominal hipopresiboak; arnasa-apnearen bitartez lantzen den teknika. Adin guztietarako emakumeendako gomendagarria, bereziki kirolariendako, umetokia eta maskuria eroria dutenendako, erditu berri daudenendako eta pixa galera dituztenendako. Sakanako Mankomunitateak eta Nafarroako Kirolaren Institutuak antolatuta.  
17:30etik 19:30era, kultur etxean.

**ETXARRI ARANATZ Kontzertuak.**

Grade2, Nafarroa 1512 eta Neallta Fola taldeen kontzertua.  
21:00etan, gaztetxean.

**ETXARRI ARANATZ Bertso afaria.**

Bertso afaye: Iker Zubeldia eta Julio Soto bertsolariekin. Txartelak: Xapatero eta Leku Ona, urriaren 25a baino lehen.  
21:00etan, Karrikestu elkartearen.



## ESKELA

**Carlos Gauna Aristu**

Gure ondotik joan zara, baina gure bihotzetan izango zaitugu betiko.

1955eko zure Kintoak

Olazti

**JAIOTZAK**

• **Izare Gartzandia Reyes**, urriaren 8an Lakuntzan

**HERIOTZAK**

• **Maria Dolores Terez Gonzalez**, urriaren 11n Irurtzunen  
• **Carlos Gauna Aristu**, urriaren 18an Olaztin

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA.  
AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

**IRAGARKI SAILKATUAK****LANA/NEGOZIOAK****ALOKAGAI**

**Altsasun 'Coworking' bulegoa autonomo eta urruneko langileentzat:** Altsasun 4 edo 5 pertsonen artean partekatuzeko bulegoa; Wifia, inprimagailua, berogailua, komuna eta office-a ditugu. Aukera paregabea! Informazio gehiago 948 562 604 edo 603 417 554 telefonoetara deituz.

**LAN ESKAINTZA**

**Mank-ek kulturarteko bitartekari lanpostua betetzeko oposizio lehiaketa:** Lanpostua aldi baterako da eta hautagai zerrenda osatuko da ere. Deialdian interesa duenak Mank-en web orrian ([labur.eus/UmF](http://labur.eus/UmF)) ditu oinarriak etab., eskabideak urriaren 25eko 14:00ak arte aurkez daitezke.

**Arakilgo Udalak dinamizatzaile kultural lanpostua aldi baterako betetzeko deialdia zabaldu du:** Hautagaien zerrenda osatu nahi dute, lanaldi erdian, B mailako soldatarekin. Derrigorrezkoa C1 maila, gidabaimena eta autoa izatea. Informazio gehiago [www.arakil.eus](http://www.arakil.eus) web orrian

mazio gehiago [www.arakil.eus](http://www.arakil.eus) web orrian

**IKASTAROKAK**

**Mank-en Hondakin zerbitzuak antolatutako jostintza tailerrak:** Jostintza sortzailea hurrekin urriaren 24an 16:30etik 18:30era, sormenezko josi pasadak urriaren 31ean 17:00etatik 19:30era, josteko makina egokitu edota erabiltzen ikasi azaroaren 7an 17:00etatik 19:30era, estanzazioa familiar (hau bikotea egingo da) azaroaren 14an 16:30tik 18:30era. Tailer guztiak Mank-en Lakuntzako egoitzan egingo dira. Tailerrak Erabili enpresarekin elkarlanean prestatu dira. Izena emateko [info.hondakinak@sakana-mank.eus](mailto:info.hondakinak@sakana-mank.eus) helbidera idatzi edo 674 144 114 telefonora Whatsapp mezua bidali lehenbailehen plazak 12 lagunetara mugatuak direlako. Animatu eta parte hartu.

**OPARITUTAKOAK**

**Katua oparitzen da:** Bi hilabete inguru ditu eta

bakarrak jaten du. Txiki-txoa da. Telefonoa 659 921 424.

**OHARRAK**

**Emakumeen bilgunearen zabalpen zerrenda martxan:** Altsasuko Udaleko Emakumeen Bilguneak Whatsapp aplikazioko zabalpen zerrenda bat sortuko du, Berdintasun Zerbitzutik antolatzen ditugun ekitaldi eta jardueren berri emateko. Zabalpen zerrendan parte hartu nahi baduzu, bidali iezaguzu Whatsapp mezua bat zure izen-abizenekin eta zerrendan parte hartu nahi duzula adieraziz telefono honetara: 628 328 593.

**Errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntzak:** Establezimendu komertzialei, ostalaritzakoei eta elkartei zuzendutako dirulaguntzak dira. Diruz lagunduko dira errotuluak, toloak eta ibilgailu komertzialen errotulazioa. Euskara hutsean idatzita dagoen errotulua jartzen duenari %50 ordainduko zaio, gehienez 500 euro emanen zaizkio. Euskaraz eta erdaraz idatzita dau-

denei %25a, gehienez 250 euro. Eskabideak aurkezteko epea 2023ko urriaren 31n amaitzen da. Informazio gehiago [www.sakana-mank.eus](http://www.sakana-mank.eus) web orrian.

**Patata operazioa:** Azaroaren 5ean, igandearekin, Iruñeako Alegria peñak patata operazioa egingo duela jakinarazi du. Urdiaindik hasi eta Satrustegi bitartean, herri herri, jakiak biltzen egonen dira igande goizean eta eguerdian. Animatu.

**Odol emateak Irurtzunen:** Urriaren 24ean 16:45tik 21:00etara Osasun etxean.

**Aralarko Santutegiako museoa bisita gidatuak egiteko aukera:** Aralarko Santutegiako museoa ikusi eta bisita egiteko ordutegiak asteartetik larunbatera 11:00etan, 12:00etan, 16:00etan eta 17:00etan. Igandeetan 10:30ean, 11:30ean, 13:30ean, 16:00etan eta 17:00etan. Pertsona bakoitzak 3 euro ordaindu behar ditu.

[iragarki@guaixe.eus](mailto:iragarki@guaixe.eus)

## OROIGARRIA

**Mikel Apaolaza Mendia**

V. urteurrena

Maite dena ez da inoiz ahazten.

**ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75**edo [eskakel@guaixe.eus](mailto:eskakel@guaixe.eus)

- Eskelen tarifak: 55,90€ / 106,5€ / 143,70€ prezio hauek BEZa barne dute.
- Bazkideek %10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

**IZARRA**

HEMEN, ZURE ONDOAN

**Izarra, Nafarroako tanatorioa**

Gure lurra, gure jendea, gure sustraiak

## BEILATOKIAK

ALTSASU  
Santa Cruz, 6ETXARRI-ARANATZ  
Nagusia, 2948 05 90 90 • [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)**IRACHE**  
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

**“Betidanik”**

- ☎ 948 19 70 70
- 📧 @Grupolrache
- 📱 Grupolrache
- 🌐 [www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)

## Kopa alde batera utzita, ligari ekiteko garaia

**FUTBOLA** Altsasuk eta Etxarri aurrera egin dute Nafarroako Kopan. Liga txapelketak bueltan dira

Altsasuk eta Etxarri Aranatzek Nafarroako Federazioko Kopan aurrera egitea lortu dute. Altsasuk hamabosgarren multzoko lider bukatu du hasierako fasea, Universidad de Navarrari 1 eta 5 eta Baztani 2 eta 1 irabazi eta gero. Etxarri Aranatz hamaseigarren multzoko lider izan da, Baztanekin bina berdindu eta Asdefor taldeari 2 eta 4 irabazita.

Kopako bi asteburuak alde batera utzita, asteburuan bueltan dira Nafarroako liga txapelketak. Preferente mailako seigarren jardunaldian Altsasuk Beti Onak B taldea izango du aurkari larunbatean, 10:30ean, Etxarri Aranazko San Donato futbol zelaietan.

Erregional mailan laugarren jardunaldia dago jokoan. Lagunak B taldearen kontra jokatu du Lagun Arteak larunbatean, 16:00etan, Barañainen. Etxarri Aranatzek Asdefor izango du aurkari igandean, 17:45ean, Amigo ikastetxean.

Emakumezkoen Preferente mailan Altsasuk burua altxa ezinik jarraitzen du. Asteburuan 12 eta 0 galdu zuen Tudelano liderraren kontra, jipoi gogorra. Larunbatean Altsasuk Berriozarren kontra jokatu du, 19:45ean, Berriozarren.

## Onddo lasterketarik eta krosik gabeko feriak

**ATLETISMOA** Dantzaleku Sakana klubak urte bukaera bitartean antolatzeak zituen atletismo probak ez dituela antolatuko iragarri du, Altsasun diru laguntza eskaerekin arazoak izan, dokumentazioa garaiz ez aurkeztu eta laguntzarik gabe geratu ondoren

**Maidar Betelu Ganboa** ALTSASU

Altsasuko feriak Altsasuko Eskolarteko Krosean eta Onddo Lasterketan parte hartuz hastera ohitura polita zen altsasuar askorendako. Joan zen urtean 231 pertsonak parte hartu zuten 14. Onddo Lasterketan, eta 82 neska-mutikok 42. Eskola Arteko Krosean. Dantzaleku Sakana Atletismo Klubak antolatzen zituen aipatu lasterketak, baina, "pena handiz" aurten ez dira egingo.

Altsasuko Udaleko kirol klubetarako dirulaguntza eskaeran gertatutakoak bulkatuta hartu du erabakia Dantzaleku Sakanak. Altsasuko kirol taldeek uztaila bukaerarako aurkeztu behar zituzten dirulaguntza eskaerak, 2023 urte guztian antolatutako kirol jarduerak kontuan hartzen zituztenak. Dantzaleku Sakanatik adierazi dutenez, egun bateko atzerapenarekin aurkeztu zuten eskatutako dokumentazioa, zenbait arazo tarteko. Horregatik, aurten dirulaguntzarik gabe geratuko direla jakin dute. Horren aurrean, hemendik urte bukaera arte aurreikusiak zituzten jarduerak bertan behera uztea erabaki dute. Onddo Lasterketa eta Eskola Arteko Krosaz gain, azken hau Nafarroako haurren kros beteranoena, San Silvestrea



Joan zen urteko Eskolarteko Krosaren irteeretako bat.

egon daiteke kolokan, Nafarroako San Silvestre beteranoena. Dantzaleku eta Sakana Triatloi Taldeak antolatzen dute elkarrekin. "Eurek egin nahi badute, aurrera, baina Dantzalekuk ez du antolatuko. Orain arteko probak aurrera atera ditugu, baina horientatik ere laguntzarik ez dugunez jasoko, hemendik aurrerakoak ezin ditugu egin". Halaber, ez dute atletismo eskolaren ardura euren gain hartuko. "Altsasuko Udalaren eskaintza denez, udalak lotu beharko ditu monitorea eta bestelakoak".

**Nafarroako Txapelketari ezetza** Halaber, Nafarroako Atletismo Federazioak azaroan Dantzalekun Nafarroako Kros Txapelketa Motza antolatzeko eskaerari ezetz erantzun behar izan dio Dantzalekuk, "bi arrazoirengatik: dirulaguntzen aferarengatik, eta Dantzalekuko obregatik". Honen inguruan, belar artifiziala aldatzeko lanek pisten egoeran izango duten eraginagatik kezka azaldu du klubak. "Aurretik pistako mantentze lanak ez ziren behar bezala egiten, eta orain, ikusiko dugu nola geratzen diren.

Bestalde, Dantzaleku ondoan 2 km-ko zirkuitu iraunkorra egiteko egitasmoa geldirik dago".

**1992tik lanean**

1992. urtean sortu zen Dantzaleku Altsasu Atletismo Kluba, gerora Dantzaleku Sakana izena hartu zuena. Klubak proba mordoxka antolatzen ditu: Eskola Arteko krosa, Onddo Lasterketa, San Silvestrea, Altsasu Krosa (tarteka Nafarroako Kros Txapelketak ere), Bargagain Mendi Lasterketa eta Tritoiena. Zenbait ekimenetan laguntza ematen du: Josefina Arregi Alzheimer Lasterketan, Aitzkozar krosean, Emakumearen Eguneko martxan eta bestelakoetan. Horregatik, gertatutakoa ez dute ulertzen. "Horrenbeste urte herrian ekitaldiak antolatzen, eta arazo txiki batengatik laguntzetatik kanpo geratzea ez zaigu zilegi iruditzen. Aspaldiko ezagunak gara, udalak antze pixka bat izan beharko luke. Hori da kalean jendeak esaten diguna".

Aurten 100 urte bete zituen Nafarroako Atletismo Federazioak, eta marsuaren 23an ospatutako galan Altsasuri urrezko intsignia eman zion federazioak, "Altsasu Nafarroako atletismoaren eta atletismo federazioaren fundatzaileetako bat delako, atletismoaren aitzindarietako bat". Aurten 51 urte bete dira Altsasun krosa antolatzen zenetik, 37. Altsasu Krosa jokatu da, 42. Eskolarteko Krosa eta 43. San Silvestrea. Dantzaleku Sakanako Iñigo Agirrek, Peio Vergarak eta Aitor Mendozak, Altsasu Kirol Elkarteko Jesus Sayasek eta Altsasuko alkate Javier Ollok jaso zuten saria. "Eta orain hau gertatu da. Ez du inork ulertzen". Datorren urtean zer egin, "asanbladan erabaki beharko dugu".

## Zelai artifiziala berritzeko lanek aurreikusi moduan segiko dute

**FUTBOLA** Europar Batzordeak mikroplastikoak dituzten belar artifizialeko zelaiak debekatuko ditu 2031tik aurrera

Europar Batasuna mikroplastikoen kontrako politikak bulkatzen ari da. Purpurinaren debekuari, kautxuaren aurkako neurria gehitu zaio. Europar Batzordearen esanetan, mikroplastikoen iturburu nagusietako bat kautxua

da. Kautxua belar artifizialeko zelaietan erabiltzen da, hare geruzaren azpian hain zuzen ere, betegarri gisa.

Europar Batzordearen 2023/2055 Erregelamendu edo araudi berriak 2031tik aurrera nahita

gehitutako mikroplastikoak erabiltzea debekatu egingo du, eta erabaki honek Nafarroan dauden 50 futbol zelai baino gehiagori eragingo die, tartean Altsasuko Dantzalekuoari. Hain zuzen ere, irailaren 25ean hasi ziren Dantzalekuko futbol zelaiako belar sintetiko aldatzeko eta argiteriaren zati bat berritzeko lanak. Altsasuko alkate Javier Ollok azaldu duenez, "kautxuaren arazoa belar artifizialeko xaflek kokatzeko oinarrian edo zoruan daukagu. Dantzalekun belar ar-



Kautxuz betetako zakuak, Dantzalekun.

tifizialeko xafla berriak jartzen ari gara lehendik dagoen zorua gainean, kautxuzko partikulak dituen, 2010. urteko obran kokatutakoa. Kontuan izanda horrelako futbol zelaiak gutxi gorabehera 10 urteko bizi iraupena dutela, futbol zelaiak erabiltzen jarraituko dugu, baina 2031 urterako Altsasuko Udalak erabakia hartu beharko du: belar artifiziala eta egungo zorua berritu, azken honek kautxuzko betegarri ez izateko; edo belar naturala duen futbol zelaiak egin".





## Ghulam Murtaza: salam

**MENDIA** Asteazkenean ongi-etorri beroa egin zitzaion Alex Txikonen eta Akhond Isahqen bidez Euskal Herrira iritsi den Ghulam Murtaza zamaketari pakistandarrari. Broad Peaken izoztutako behatzetako sei falange anputatu dizkiote. Tratamenduan eta bizibide berrian laguntzeko 1.735 euro jaso ziren. Aurrio eskalada klubak bildutakoei esker ona adierazi die.

## PILOTA Guillermo Mazon, Uhartek Etxarrenen lekukoa hartu du

Urriaren 25ean, asteazkena, abiatuko da Guillermo Mazo Memoriala, 2023ko Nafarroako Gazteen Lau eta Erdiko Txapelketa. Urtero moduan Pablo Lopez de Goikoetxea altsasuarra arituko da bere lagun handia zenaren izena duen torneoa antolatzen.

Partidak Lekunberriko Jaian Jain eta Uhartek Arakilgo Larriebietan jokatu dira. Uharteko

frontoiak Etxarrenen Arambururen lekukoa hartuko du, "Etxarrenen frontoiko ezker paretak hezetasun arazo larria duelako" dio Lopez de Goikoetxeak.

Urriaren 25eko Lekunberriko jardunaldian (18:00), Irurtzun klubeko Markinak Ultzamako Martikorena izango du aurkari. Bigarren jardunaldia urriaren 31n 18:00etan jokatu da, Uhartek Arakilen. Erabakiko diren lau partidaren artean, Irurtzun klubeko Zabalak Ardoiko Setuainen kontra jokatu du.

# Altsasuko Lau eta Erdiko jaialdiaren bueltak

**PILOTA** Altsasuko ferietako pilota jaialdiak mugimendu handia izan du. Salaberriaren bajarengatik ez da Lau eta Erdiko partida nagusia jokatu, baina Promozioko Lau eta Erdiko partidak eta Zabaletak eta Martijak pilotazaleak erakarriko dituztela espero da

### M.B.G. ALTSASU

Lau eta Erdiko partidetak bat Altsasuko ferietan jokatu zelako gustura zeuden pilotazaleak. Urriaren 20a, ostirala, zen data, eta Erik Jaka eta Iker Salaberria ziren jokatzekoak. "Biok belarrondoko polita hartuta gatoz, eta bakoitzak bere ondorioak aterata, zer egin argi izan behariko dugu" azaldu zuen Jakak material aukeraketan. "Nahi bezala, agian ez, baina ostiralerako aitzakiarik gabe" zegoela esan zuen Salaberriak. Eskuin esku kailuaren arazoengatik, Salaberriak ezingo du jokatu, eta programazioa moldatu behar izan dute. Azkenean, 19:30an



Jaka eta Salaberria, kutxa itxia sinatzen.

Burundan hasiko den jaialdian, Promesen Lau eta Erdian Eskirozek Exposito izango du aurkari, eta partida nagusian lehen mailako bi atzelari sakandarrak elkarren kontra lehiatuko dira: Martijak Elezkano II.a izango du bidaide, eta Dariok Zabaleta.

### Feria herri kirolzaleak

Ferietako kirol eskaintza polita da. Larunbatean, 18:00ean, XXIII. Sakanako Herri Kirol Eguna abiatuko da Iortia plazan. Eta, igandean, 17:00etan, erremonte jaialdia Burundan. Otxandorena-Leatxek Osos-Ion izango dituzte aurkari, eta Jabalera-Agirezabalak Matxin III.a-Otano.

## Ezkurdia eta Etxeberria lehenengoz Deportivon

Bilboko Deportivo frontoiak 27 urte ondoren esku pilota partida bat hartuko du. Joseba Ezkurdia eta Peio Etxeberria nor baino nor ariko dira Lau eta Erdian. Lehen jardunaldian garaipena lortu eta gero, gaur Bilbon jokoan dagoen puntua lortzen duenak hanka eta erdia baino gehiago izango du finalerdietan. Askok dago jokoan, eta nahiz eta Ezkurdia faborito izan, Deportivok erabakiko du.



Ezkurdiari eta Etxeberriari asko gustatu zitzaizen Deportivo frontoia. ASPE



errigora

errigora.eus

Nafar hegoaldeko uzta  
euskarari puzka

10 urte  
bete-bete

urriak 20 - azaroak 9



Eskatu  
saskia!



# "Emakumeek padela ezagutzea nahi dugu"

AMAIA GERRIKAGOITIA URIARTE KIROL TEKNIKARIA

**PADELA** Sakanako Mankomunitateak emakumeei zuzendutako Padel Ate Irekiak antolatu ditu Arbizuko Sakana Padel egoitzan, azaroaren 5ean, dohainik

**Maidar Betelu Ganboa** LAKUNTZA Berrikuntza batekin dator Sakanako Mankomunitatea, azaroaren 5ean, igandearekin, emakumeei zuzendutako Padel Ate Irekiak antolatu baititu Arbizuko Sakana Padel egoitzan, 10:30etik 13:30era. Haurrendako zaintza zerbitzua egongo da, eta behar duenak taxi zerbitzua izango du. Izena ematea zabalik dagoela azaldu du Amaia Gerrikagoitia kirol teknikaria, eta ekitaldia doan dela.

**Sakanako Mankomunitateak padel ekitaldiren bat antolatzen duen lehengo aldia al da?**

Bai, Mankomunitateak padel topaketa bat antolatzen duen lehengo aldia da. Zerbait berria antolatzeak jendea erakarri dezakeela iruditzen zaigu, baita jende berria ere. Bi ekintzailek Utzubar industriagunean jarri dute martxan Sakana Padel egitasmoa, eta horrek kirol horretan aritzeko aukera eskaini digu. **Padela pala berezi batekin jokatzeko den tenisaren antzeko kirola da. Zer berezitasun dauka?**

Leku itxian jokatzeko da. Kristal batez itxitako lauki luze bat da kantxa, tenisekoa baino txikiagoa. Erdian sare bat du. Bikoteka jokatzeko da, eta esango nuke tenisa baino errazagoa dela, bai ikasteko eta baita jo-



Amaia Gerrikagoitia Uriarte kirol teknikaria, Padel Ate Irekien kartelarekin. UTZITAKOIA

**"BESTE KIROL MOTA BAT EGITEKO AUKERA DUGU ESQUALDEAN, ETA APROBETXATU NAHI DUGU"**

katzeko ere. Pala nahiko zabala da. Askoz gehiago ere ezin dut esan; ate irekietan ikasiko dugu. **Zergatik da emakumeei zuzendutako ekitaldia?**

Sakana Padelek urte pasa daruma martxan, eta gehien doazenak

gizonezkoak dira. Emakumeei halakoetara joatea gehiago kostatzen zaie. Bestalde, emakumeok gure gain hartzen ditugu zaintza lanak askotan. Hainbat faktore daude. Horregatik, emakumeek kirol hau ezagutzea nahi dugu, eta jardunaldia prestatu dugu. Padel Ate Irekien jardunaldietatik aurrera, emakumeak euren kabuz joan daitezke. Agian topaketa batzuk antolatu ditzakegu, beti ere interesa badago. **Zaintza aipatu duzu; Padel Ate Irekietan haurrendako zaintza zerbitzua jarri duzue.**

Bai, umeak zaindu behar izatea ez izateko ekitaldira joateko oztopo bat. Sakana Padelen bi pista daudenez, 5 urtetik gorako haurrei ere padel ikastaroa eskainiko zaie. Hau da, pista batean emakumeak egongo dira, eta bestean umeak. Eta txikitxoak direnei bere adinera egokitutako zaintza eskainiko zaie.

**Ekimenaren bidez padela ezaguturazi eta sustatu nahi duzue?**

Beste kirol mota bat egiteko aukera dugu eskualdean, eta horrelako ekintzak aprobetxatu nahi ditugu. Praktika atsegina izango delakoan nago, eta espero dut emakumeen artean harremanak sortzea. Ea taldetxoak sortzen diren elkarrekin kirola egitera joateko. Sakana Padelen bakoitzak nahi duen ordutegia aukeratu dezake. Sarrerak sistema elektronikoa duenez, gaueko hamarretan edo goizaldeko zazpietan joan zaitezke.

**Olaztiko Erburua kiroldegiak ere padel pista du**

Bai, ez da estalia, baina pista du, eta arrakasta duela uste dut. **Finean, helburua ariketa fisikoa sustatzea da, sakandarrak aktiboak izatea, Mankomunitatearen erronketako bat.**

Bai, ariketa fisikoa egitea, eta ongi pasatzea. Gozatzen baduzu, ziurrenik jarduera hori egiten jarraituko duzulako. Hori da asmoa.

**Emakumeen Padel Ate Irekietan izena ematea zabalik dago, eta dohainik da.**

Bai, urriaren 25era arte eman daiteke izena, Sakanako Mankomunitatean (948 464 866 edo [kirolak@sakana-mank.eus](mailto:kirolak@sakana-mank.eus)). Sakanako emakumeei deia egiten diegu, ea animatzen diren. Azaroan egunak ere motzak izaten dira, eta barruko jarduerak egiteko oso garai ona da.

**Maidar Betelu Ganboa** BAKAIKU

Bakarrekoetxea elkarteak eta Katzarros de Maderak urriaren 14an antolatutako VI. Katzarro Eguna Klasikoen Topaketa baino askoz ere gehiago izan zen: festa egun potoloa. Izena emateko epea itxi baino aste bete lehenago 180 partaide zeuden izena emanda eta, hortaz, parte hartze handia espero zen. Baina ez horrenbestekoa. 2019an egin zen azkeneko Katzarro Eguna, pandemia aurretik, eta orduan 197 parte hartzaile izan ziren. Larunbatean, azkenean, 260 parte hartzaile baino gehiago izan ziren. "Dagoeneko kontua galdu dugu" azaldu zuten antolatzaileek, pozik.

Denetariko auto, moto, kamioi, bizikleta, lan tresna eta jostailu zahar ikusi ahal izan ziren Bakaikuko kaleetan. Baita trikiti-xa zaharrak ere. Horretaz gain, Bakaikuko kamioilarien argazki zaharrak jarri zituzten ikusgai, herriko txoferrak gogoan. Horrenbeste katzarro zeudenez, Bakaikuko plaza eta eliza pareko kaleez gain, Galtzada kalean eta ondoko lursail batean apartatu behar izan zituzten.

**Altxorak**

Denetariko altxorak zeuden. Zazpi kamioi klasiko, tartean bere garaian Alemaniako polizia mugetan erabiltzen zuen Mercedes kamioi berde ikusgarria, Jesus Miguel Amoztegui altsasuarrarena, edo 1946ko GMC kamioia, Normandiako lehorratzean parte hartu zuena eta Ignacio Urbitarte etxarriarrarena dena. "Gasolinazkoa zen, baina gero diesel bilakatu zuten Barreiros motorra jarri ziotenean". Ikusgarriak ziren, halaber, hasierako Volkswagen California furgoneta mitikoak, eta baita sidecar grisa ere. Autoetan, 1922ko Ford T autoa eta 1935ean Iruñean matrikulatutako Seven Rubi auto ingelesa izan ziren berezienak, Jaguar eta Renault Alpineekin bestelako autoekin batera: Seat 600, 850 eta 124, Simcak, Citroën 2 CV, sei gurpileko C15a.... Denetatik, bildutakoendako gozagarri. Ja-beak euren autoek sortu zuten ikusmin eta arretarekin kontentu, eta baita ikusleak ere. "Bizkaitik etorri zarete? Bai, auto hauekin edonora joan gaitzake" korro batean. "Seat 600 honek 90 kilometroko gehieneko abiadura du" bestean.

## Ander Erice, zazpigarren Hiru Haundietan

**MENDI LASTERKETAK** Korrikalari arbizuarrak 12 ordu pasa behar izan zituen Gorbeia, Anboto eta Aizkorri batzeko

Urriaren 14an jokatu zen XXIII. Hiru Haundiak ultra traila (101 km, 10.125 m desnibela). Murgian hasi zen, goizaldeko ordu batean, eta Gorbeia, Anboto eta Aizkorri lotu ondoren Araian despeditu zen. Julen Martinez

de Estibariz arabarrak (Manu Yanke) eta Alvaro Ramos salamankarrak (A4KM) lehia oso estua izan zuten, baina 80 kilometroan Ramosek ezin izan zuten Martinez de Estibarizen erritmoa etsi eta arabarrak bakarrik

egin zuten aurrera, 2021ean lortutako garaipena berretsiz (10:44:48). 11 minutu atera zizkion Alvaro Ramosi (10:56:23). Sakana Bizirik taldeko Ander Erice Tornaria arbizuarra Top 10ean sailkatu zen, zazpigarren iritsi baitzen helmugara (12:07:05). Ander Iraizoz (Dantzaleku Sakana) 67. sailkatu zen (14:33:15), eta Xabier Bergera (Altsasuko Mendigoizaleak) 68. (14:33:19). Emakumezkoetan Ane Zabala gipuzkoarra (Besaide) ez zuen areriorik izan (14:30:02).



Hiru Haundien irteera. FESTAK





Bakaikun eremu berria zabaldu behar izan zuten aurkeztutako katxarro guztiak hartzeko.

# Katxarro Eguna, klasikoaren festa

**MOTORRA** Aurreikuspen guztiak beteta, 260 katxarro baino gehiagok parte hartu zuten larunbatean Bakaikun antolatutako VI. Katxarro Egunean. Bakaiku txiki geratu zen ibilgailu klasikoak ikustera hurbildu ziren zaleendako

Bizikleten eremuan, plazan, hasierako bizikletak eta 60ko eta 70eko hamarkadetan etxe gehienetan zeuden BH, G.A.C eta Torrotak jarri ziren ikusgai. Parkea, aldiz, motorren gunea bilakatu zen. Bultaco, Moto Guzzi, Ossa, Ducati, Vespa... eta bestelakoak. Baita Mobyllite Cadya ere, antolakuntzak zozketatu zuena. Zozketarako txartelak agortuta, Katxarro Egunean parte hartu zuen kide bat izan zen onuraduna. Pozez zorutzen igo zen motorrera. Gorka Arbizuk katxarro zaharrenaren saria jaso zuen, 1922ko Ford T autoari esker. Zaragozako Casetaseko Paco Romanek urrutienetik hurbildutako katxarroaren saria jaso zuen, eta katxarro berezienaren saria Arana Sport taldeak jaso zuen, Terentxo eta Iñaki anaien 1935eko Austin Seven Rubi autoari esker.

## Buelta ederra

Ibilgailu guztiek ibilbidea egin zuten elkarrekin: Etxarritik Lizarrustiko bidea hartu zuten, Lizarragabengoa pasa eta Arbizutik Iturmendiraino joan ziren, handik Bakaikura heltzeko.

Bakaikuko Katxarro Eguneran jende asko gerturatu izan da beti, baina aurtengo edizioak errekorrak apurtu zituen. Sakandarrak ziren asko, baina Euskal Herri osoko zaleak hurbildu ziren Bakaikura, katxarro eta traste zaharren artean kuxuxeatzera, eta baita Zaragoza eta Soriako jendea ere. ETB eta

**ANTOLATZAILEAK,  
BAKAIKURA  
HURBILDUTAKO JENDE  
ETA KATXARROEKIN  
"OSO ESKERTUTA"**

Navarra Televisionek ere ekimena jaso zuten.

## Bazkaria eta Discodelia DJ

Bakarrekotxea elkartean 136 pertsona bildu ziren herri bazkarian. Arratsaldean Discodelia DJ taldeko Ahiker Azcona eta Iñaki Viñaras euren funeraria klasikoan hurbildu ziren elkartera, euren musika sesioa eskaintzera. Ordu txikiak arte iraun zuen katxarro klasikoaren festa.

Dagoeneko hurrengo urtera begira daude antolatzaileak, aurtengoaren balorazio ezin hobea eginda. "Oso kontentu gaudela, oso eskertuta, Bakaikura hurbildutako parte hartzaile eta ikusleen kopuruagatik. Aurreikusitakoa gainditu dute, alde handiz" azaldu zuten Jesus Aiestaranek, Haizea Galarzak, Iñigo Zelaiak eta Saioa Zelaiak.



Katxarro zaharrenek ikusmin berezia piztu zuten.



Motorrak Bakaikuko plazan jarri zituzten ikusgai.



Mobyllite Cadyaren zozketako saritua pozez zorutzen zegoen.



Katxarroak batera atera ziren buelta egitera.



# Mastersa irabazita pala denboraldiari ginga jarri dio Asier Galarzak

**PALETA GOMA / FRONTENISA** Irurtzundarrak, Otanorekin bikotea osatuta, paleta goma Mastersean ez du huts egin. Argi ditu hurrengo erronkak: Eguberrietako Frontenis Torneoak, tartean Irurtzungoa, eta ilbeltzetik aurrera hasiko diren pala txapelketak

## Maider Betelu Ganboa IRURTZUN

Asier Galarza palista eta frontenislari irurtzundarrak ez du aspertzeko betarik. Paleta goma eta frontenis denboraldiak tartekatzen ditu, eta, egutegiek bat egiten dutenean, biak uztartzen ditu. Udan frontenisean egon da murgildua, eta egindakoarekin kontentu dago. "Oso zaila zen aurreko bi urteak errepikatzea, baina ezin naiz kexatu". Paleta goma denboraldia nabarmendu du, ikusgarria izan delako.

## Palan, denboraldi borobila

Paleta Goma denboraldia irailean hasten da. 2022/2023 denboraldia bikain hasi zen San Juan klubeko aurrelari irurtzundarra-rendako, 2022ko irailean Fronton Lopezek antolatutako Mastersa irabazi baitzuen Egoitz Gamio-rekin. "Masterserako aurreko urteko sei aurrelari eta atzelari onenak hartzen dituzte, eta rankinga egiten dute. Hau da, bikoteak egiteko aurrelari onena seigarren atzelari onenarekin jartzen dute, bigarren aurrelari onena bosgarren atzelariarekin... eta horrela, errenkadan, bikoteak mailakatzeko asmoz. Niri Egoitz Gamio baztandarrarekin egokitu zitzaidan, eta oso gustura aritu ginen" azaldu du. Azaroan Nafarroako Kluben Arteko Banakako Bost eta Erdiko Paleta Goma Txapelketa irabazi zuen, eta 2023 urtea astearekin batera garaipenak bata bestearen atzetik iritsi ziren: Atarrabiako Andoni Alberrorekin bikotea osatuta, martxoan Euskal Herriko Bikotekako Ohorezko Mailako Txapelketa irabazi zuten; maiatzean Lopez Frontoian jokatzen den Graciano Iriarte Memoriala; eta ekainean Nafarroako Bigarren Mailako Paleta Goma Txapelketa.



Asier Galarza, eskuinean, eta Alex Otano, Masterseko txapeldunak. UTZITAKOAK

Orain 2023/2024 denboraldiari ekin dio, berriz ere goitik, irailan Fronton Lopezeko Bigarren Mailako Mastersa irabazi baitzuen, rankingari jarraituz Alex Otanorekin (Amaya) bikotea osatuta. Aritz Iturri (Egües) eta Ibai Santesteban (Fronton Lopez) izan zituzten aurkari, eta 25 eta 22 irabazi zieten. "Otanorekin jokatzen nuen lehen aldia zen, eta gustura aritu ginen. Finala oso estua izan zen, partida luzea. Ordu eta erdi pasa egon ginen jokoa. Hasieran paretsu ibili ginen, seina eta zazpina berdinduta. Gero eurek aldea atera zuten, 8 eta 13, baina partidari buelta ematea lortu genuen eta 24 eta 18 jarri ginen aurretik. Bukarera gogotik sufritu genuen, 24 eta 22 hurbildu zirelako, baina sufrirituz 25 eta 22 gailentzea lortu genuen, poz handia".

## Datorrena

Aurki Nafarroako Banakako Paleta Goma Txapelketa hasiko da, baina Asier Galarzak atsedean hartu nahi du. "Udan Pirinioetan lesionatu nintzen, baina frontenis txapelketengatik ez nuen atsedean hartu, lesioa ez zait behar bezala osatu. Beraz, litekeena da Banakakoan ez aritzea. Gorputzari ongi etorriko zaio atsedena". Abenduan Eguberrietako hiru frontenis txapelketetan parte hartuko du, tartean Irurtzungoan, Galarzak berak antolatzen duena. "Eta ilbeltzetik aurrera paleta gomari gogoz ekitea da asmoa. Ilbeltzean Binakako Nafarroako Txapelketa hasiko da, eta Andoni Alberrorekin errepikatuko dut. Aurten lehen mailan arituko gara; ea zer moduz moldatzen garen. Martxotik maiatzera Graciano Iriarte Memorialean Jesus Urrarekin jokatuko dut, eta Euskal Herriko Bikotekako Ohorezko Mailakoan oraindik ez dut erabaki norekin jokatuko dudana. Ilbeltza eta martxoa bitartean jokatuko denez, guztia uztartzea eromena izango da".

## Frontenisean, uste baino hobe

Udan frontenis txapelketetan murgildua ibili da Galarza, "aurreko bi urteetan baino gutxiagotan, bestelako konpromisoak nituelako". Euskal Herrian, Bartzelonan, Madrilen, Segovian, Zaragozan, Valentzian... aritu da, eta egindakoarekin kontentu dago. "Aurreko denboraldikoa errepikatzea oso zaila zen. Hogei

torneo ingurutan parte hartu nuen, eta emaitzak oso onak izan ziren. Aurten hamabi-hamalau torneo izan dira, eta ezin naiz kexatu. Lesioagatik gutxi entrenatuta, emaitzak espero baino askoz hobek izan dira".

Asteburuan Zaragozako Pilarako Frontenis Txapelketako txapeldunordea izan zen Jesus Dominguezekin. Dominguez izan da bere bikotea torneo askotan, baina zenbait txapelketetan beste bikoteak izan ditu, Burgosko Jony Serna, Segoviako Luismi Sanchez, Valentziako Adrian Gasch eta Madrilgo David Rodriguez, esaterako. "Valentzian, Bartzelonan eta Madrilen gora egin du frontenisak; federazioak frontenisa sustatzeko lana egiten ari dira, eta nabaritzen da. Nafarroan, esku pilota, pala motza eta larruzko pala sustatzen dira gehiago, Espainiako eta Mundialeko txapelketetan jokatzen diren modalitateak".

Asier Galarzak 33 urte ditu eta palan urte asko ditu aurretik, palak luzaroan jokatzeak aukera ematen duelako. "40 urtetik gora dituzten goi mailako palistak daude, sekulako sasoiaren dutenak eta izugarri jokatzen dutenak". Gehienak oso lehiakorak dira. "Maila jakin bat duzunean, hor segi nahi duzu".

## Irurtzungo txapelketa prestatzen

Abenduaren 16an Huescako frontenis txapelketa jokatuko da, abenduaren 23an Irurtzungoa eta abenduaren 30ean Magallonkoko (Zaragoza). Hiruretan parte hartuko du Galarzak. Dagoeneko Irurtzungoa antolatzen hasi da. "Jendea galdezka dut, ea noiz eman dezaketen izena. Berehala izango da, jar daitezela nirekin harremanetan". 2022an txapelketak errekorra apurtu zuen, estatuko txoko askotatik hurbildutako 64 bikote lehiatu baitziren, jokalaririk onenak. Torneo prestigiotsu honen sariak potoloak izaten dira. "Azpiegitura guztia prestatu, baimenak eskatu, babesleak lotu... lan itzela izaten da, baina Irurtzungo txapelketak harrera oso ona du, eta jendeak oso gustuko du".

**"PALETA GOMAKO DENBORALDIA BIKAINA IZAN DA; FRONTENISEKOAREKIN ERE EZIN NAIZ KEXATU"**





'La Ermita' filmaren grabazioa Itxasperri. DAVID HERRANZ / FILMAX

# Ermita protagonista

Arakilgo Itxasperri ermitan grabatu zuten Carlota Peredak zuzendutako 'La Ermita' filma. Bi aste inguru egon ziren Egiarretako baselizan grabatzen, eta Aritz Leoz Crespo altsasuarrak pelikularen produkzio taldean lan egin zuen

**E. R. B. EGIARRETA / ALTSASU**

Duela urte bat gutxi gorabehera bi astez "sekulako iraultza" izan zen Egiarretan. Ekoiztetxe batek herria "hartu" zuen; besteak beste, elkarte ileapaindegia eta makillaje saloi bihurtu zuten eta frontoian aldagelak eta bulegoak jarri zituzten. Itxasperri ermitaren ingurua ere eraldatu zuten, eta egiarretar asko zertan ari ziren ikustera hurbildu ziren. *La Ermita* filma grabatu zuten bertan, eta orain Sitgesko Beldurrezko zinema jaialdian aurkeztu dute. Filmaren zuzendaria Carlota Pereda da, eta bere bigarren film luzea da *La Ermita*. Lehenengo filmak, *Cerdita-k*, Goya sarietan sei izendapen jaso zituen. Maia Zaitegi haurra da protagonista, Belen Rueda aktore espainiar ospetsuarekin batera, eta pelikularen produkzio taldean Aritz Leoz Crespo altsasuarrak lan egin zuen.

Leozek azaldu duenez, Itxasperri grabatzen bi aste inguru egon ziren, eta aurretik kokapen lanak egiten beste astebetetz egon ziren: tokiak bilatu, azpiegiturak ikusi, filmatzea antolatu eta abar. "Baina grabaketa-lanak bi aste iraun zuten, eta ondoren ermita guztia 3D teknologiarekin eskaneatzen egon ginen, ordenagailura eramateko". Ekipoaren zati handi bat Zarauztik Egiarretara joaten zen, baina zenbait arduradun Irurtzunen gelditu ziren eta "operazio zentroa" Arakilgo herrian jarri zuten. Grabazioak Itxasperri ermitaren

**DUELA URTE BAT INGURU 'LA ERMITA' FILMA GRABATU ZUTEN EGIARRETAO ITXASPERRIN**

inguruan izan ziren, "bizilagun asko gerturatzen ziren baselizan zer egiten ari ginen ikustera, eta haiekin hitz egiteko aukera izan genuen; Itxasperri buruzko hamaika istorio kontatu zizkiguten. Oso hartu-eman polita izan zuen".

**Kokapena**

Filmerako ermita "handi eta itxuroso" bat bilatu nahi zuten, eta Itxasperrikoa profil horretan sartzen zen. Idoia Artxanko Torradella iruindarra da kokapenen arduraduna, eta Sakana ongi ezagutzen duela azaldu du Leozek: "Aurkeztu zien ermitetako bat hori zen, eta momentuan ikusi zuten Itxasperri ermita zela aproposena. Ingurua zuhaitzez inguratuta, handia, barrutik ere handia, eroso grabatu ahal izateko... Istorioarekin bat egiten zuen".

"Ermitako ingurua erabat moldatau genuen, baita barrualdea ere. Arte departamentuak girotu zuen". Emitaren "bi garai desberdin" agertzen dira, duela mende batzuetakoa eta gaur egungoa. Itxasperriko zelaian azoka bat sortu zuten eta baita beste hainbat girotze-elementu ere. "Ermita mende askotako aldearekin ikusten da, garai desberdinetan, eta eraldaketa ikaragarria egin zen". Gainera, pelikulan Itxasperri ez da Itxasperri eta ez dago Arakilen ere. "Pelikula gehienetan bezala, gauzak ez dira leku bakar batean grabatzen, nahiz eta gero muntaiaren bidez guk toki bakar batekin identifikatzen dugun". Hortaz, ermita hori beste herri fiktizio baten tenplua izango dela azaldu du Leozek: "Herri hori hainbat tokitan grabatu dugu. Ikusiko ditugu Sakanako, Leitzako eta ezagunak egiten zaizkigun beste paisaia batzuk ere, nahastuta".

**Itxasperri**

Asko aurreratu gabe, *La Ermita* filma Emmaren pertsonaiaren inguruan egituratzen da. "Emma haur bat da, eta ama hil zaio. Neska saiatuko da hildakoen mundu paralelo horrekin harremanetan jartzen. Saiakera ermitan egiten du, aspaldiko espiritu bat bertan itxita dagoela. Medium bati laguntza eskatzen dio, baina medium hori faltsua da eta ez du bere lanean sinistu ere egiten, eta umearen inozentziarekin kontaktu saiakera bat egiten dute, eta mediumak ere berraurkituko du mundu paralelo hori". Kontakizun guztia "ermita horren inguruan" gertatzen da; ermita protagonista "zentrala" da, "erabat".

Bi astez Itxasperriko ermitako kanpoaldean eta barrualdean grabatu zituzten, eta beste aste batez Donostiako plato batean eraiki zuten Itxasperri ermitaren erreproduktzio batean grabatu zuten. "Ermita bera Donostian eraiki zuten. Ermita ongi islatzen zen, tamaina berekoa zen. Ermita hori Donostian egin zuten. Zergatik? Bazirelako ermitaren

**"MOMENTUAN IKUSI ZUTEN ITXASPERRI ZELA, FILMAREKIN BAT EGITEN ZUTEN" ARITZ LEUZ**

barruan grabatu ezin ziren gauzak, ondare historikoa delako eta babestuta dagoelako". Leozek azaldu bezala eta asko aurreratu gabe, "badira zenbait efektu bertan ezin zirenak egin, eta horregatik berreraiki zen". Gastu eta esfortzu handia izan zen, "beraz, horrek adierazten du ermitak pelikulan duen garrantzia".

Ermitaren erreproduktzioa egiteko aurretik 3D teknologiarekin eskaneatu zuten, eta Leozen lanetako bat horretaz arduratzea izan zen. "Egun osoko prozesua izan zen, zentimetroz zentimetro eskaneatu zuten bai kanpoaldea bai barrualdea, eta gero ordenagailura pasa zuten. Ordenagailuko irudian denetarik egin dezakete: zulo bat sortu, buelta eman, angelu guztietatik hartu... Ezinbestekoa da VPX edo efektu digitalak sortzeko". Baita ermita hartu eta beste inguru batean sar daiteke ere.

Filmaren "elementu zentrala" ermita da, baina protagonista Emma da, Maia Zaitegi aktore gipuzkoarrak egiten du paper hori. "Bere lehenengo papera da eta izugarri ondo egiten du". Haur bat denez, filmatzea moldatau behar izan zuten. "Adingabeek ordutegi berezia dute eta dena ordutegia horren inguruan antolatu behar dute". Esaterako, ezin dute 22:00etatik aurrera grabatu, "eta filmean eszena asko gauez grabatzen ziren, orduan grabazioa antolatzen zen horren arabera". Haur aktoreek coach bat izaten dute grabazioetan, haien arduraduna dena: "Eta Olatzek aktore eta hezkuntzan esperientzia zuen eta modu bikainean eraman zuen. Oso zaila zen emozioak orekatzea eta horretarako entrenituta egon behar zen ordu hil asko egoten direlako eta errepikapen asko egin behar direlako". Eszena asko "oso zirrargarriak" ziren, eta haur bat dela kontuan hartuz, "hor Maiaren meritua ikaragarria izan zen".

Egun batean txirindularekin buelta bat ematen ari zela ezagutu zuen Leozek Itxasperri, duela zenbait urte. "Sorpresa hartu nuen horrelako ermita ikustean". Bertan grabatu behar zutela jakin zuenean "ilusioa egin zidan". Leku "berezia eta benetan polita" dela esan du. Produkzio departamentuaren barrua lan egin zuen, gehienbat logistikan.

## Bertsolari Txapelketaren azken finalaurdena Leitzan jokatu da

Eneko Lazkoz eta Saats Karasatorre bertsolari etxarriarrak 2023ko txapelketan mustuko dira bihar

SAKANA

Leitzako Herri Aretoan izanen da Nafarroako Bertsolari Txapelketako lehen faseko azken saioa, 17:30ean. Irabazleak zuzenean eskuratuko du finalurrekoetarako txartela, eta saioa bukatutakoan argituko dira hurrengo fasera sailkatzen diren beste bertsolarien izenak. Azken finalaurdenean Eneko Lazkoz Martinez eta Saats Karasatorre Martinez bertsolari etxarriarrak ariko dira, Josu Sanjurjo Alzuri, Bittori Elizalde Soto, Endika Legarra Nuin eta Fernando Zi-

ganda Urdanpilleta bertsolariekin batera. Ander Aranburu izanen da gai jartzailea.

Leitzako saioan puntu gehien biltzen dituen irabazlea zuzenean sailkatuko da finalurrekoetako faserako. Dagoeneko Sarai Roblesek, Julio Sotok eta Joanes Illarregik eskuratu dute txartel hori. Lau saioetako lau irabazleekin batera beste hamalau bertsolari izanen dira finalurrekoetan, lehen fasearen sailkapenaren arabera. Azaroaren 4an emanen zaio hasiera finalurrekoen faseari, Altsasuko Iortia kultur gunean.



BAZTERRETIK

EKAIN ALEGRE GIL

## Halley kometa

Gogotsu zaude. Bi urtetan behin jokatzeko den txapelketa batek berriro eman dizu zure herrian bertso saio bat entzuteko parada. Ilaran zaudela, zu bezala sartzeko itzaroten dauden aurpegitan ilusioa nabari dezakezu, haiek ere badakitelako Halley kometa pasatzen ikustea bezalakoa dela herri honetan bertso saio bat: gehiagotan ikusi nahiko zenukete, baina agian ez duzu berriz aukerarik izango. Goraino beteta dagoen aretora sartu zara azkenean eta espero zenuena topatu duzu: sei bertsolari kantuan eta hiru orduz haiek kantaturikoei txaloka erantzuten dien entzuleria.

Saioa amaitu da, eta etxerantz oinez zoazela, hainbat gogoeta hasi zaizkizu garezurra kolpatzen, erantzun bila. "Zergatik hemen ez dago bertsolaririk?" bota dizu lehenengoak. Baduzu herriko hainbat gaztetxoren oroitzapena, urte batzuk atzera nonbait entzun omen zenituenak eta albisteren batean ikusi zenituela ere zin egingo

zenuke, baina seguru zaude gaur egun ez dabilzala bertsotan: "haien herrian ez badute abesten, beste inon ere ez dute abestuko".

Bigarren pentsamendu bat iritsi zaizu etxeko giltza sarrailan sartzen duzun bitartean: "hainbeste jende bildu bagara gaur, zergatik ez dira bertso saio gehiago egiten hemen?". Ia ironikoa iruditzen zaizu aniztasun kulturala eta kultura eskaintza zabala bereizgarritzat daramatzen herriak Nafarroa Arena bete zuen diziplina kulturalari ezikusaren egitea, are gehiago ikusten duzunean ondoko herrietan haren lekua hartu duela bertsolaritzak, baina: "zergatik hemen ez?".

Erantzunik gabe utzi dituzun galderak buruan bueltaka dituzun bitartean hasi zara afaltzen, oraindik entzun berri duzun saioa memorian presente duzula. Nahiko zenituzke fenomeno astronomikoak sarriago ikusi, baina badakizu Halley kometa bakarrik pasatzen den herri honetan gehiegi eskatzea dela hori.

# Liburuak ez badira jendearengana iristen...

Bigarren urtez Nafarroako VII. Editoreen Azoka Altsasun izanen da, igandean. Editargi Nafarroako argitaletxeen xedea bertako editoreen lana ezagutaraztea da. "Zero kilometro liburuak" egiten dituztela esan du Aritz Otazu Lujanbio elkarteko presidentek

E. R. B. ALTSASU

"Guk argi esan genuen: jendea ez bazen liburuetara etortzen, guk eramango genituela liburuak. Iruñetik ateratzea garrantzitsua da. Argitaletxeetarako esfortzu handia da herrietara joatea eta dena mugitzea, baina pixkanaka jendeak ikusten gaitu". Aritz Otazu Editargi Nafarroako argitaletxeen elkarteko presidentea da, eta igandean, urriak 22, goizez Altsasun antolatuko den Nafarroako VII. Editoreen Azokaren lehenengo helburuetako bat bertako argitaletxeak ezagutzera ematea dela esan du. Hamar argitaletxe egonen dira Altsasun.

Editargi duela hogeitau urte sortu zuten, 2003an. Txori Errekan, Igela, Mintzoa, Txalaparta eta Pamiela nafar argitaletxeak elkartu ziren eta elkarte bat sortzea erabaki zuten. "Urtetan ez genuen asko egin; duela zazpi urte hasi ginen gehiago mugitzen". Ikusi zuten garrantzitsuena azoka bat egitea zela: "Azkenean, liburudendetan ezin dute gure katalogo osoa izan, aukera hori gutxi gorabehera azokak ematen digu". Nafarroako Gobernuarekin harremanetan jarri ziren, "bakarrik ezin genuelako", eta Nafarroako Editoreen Azoka antolatuta zuten, Iruñetik Geltokin. "Esperientzia ona izan zen. Hemen Liburu Azoka ezagutzen zen, baina hau ez da liburu azoka bat, hau argitaletxeen azoka bat da". Bigarren urtean, Gazteluko plazara joan ziren eta ondoren, Sarasate pasealekura mugitu ziren. Gaur egun, bertan egiten da azoka.

"Datu bat ematen dut beti: lehenengo urtean ehun eta piko liburu saldu genituen, eta orain bi mila pasa saltzen ditugu". Dena den, liburu asko saltzea ez da, "oraingoz", helburua; "noski, enpresak gara, baina gure lehenengo xedea da jendeak ikustea hemen argitaletxeak egon badaudela eta nortzuk garen. Jendeak Planeta eta abar ezagutzen



2022ko Altsasuko Nafarroako editoreen azoka. ARTXIBOA

## "TALOAK ETA BESTELAKO BERTAKO PRODUKTUAK DAUDEN BEZALA, LIBURUAK ERE KALEAN DAUDE"

ditu, baina hemengoak ez ditu ezagutzen". Pixkanaka helburua betetzen ari dela esan du Otazuk. "Jendeak erosten du eskuragarri duena, ezagutzen duena, eta horregatik geure burua ezagutzera emateko azoka tresna hobereena zen".

"Taloak eta bestelako bertako produktuak dauden bezala, liburuak ere kalean daude". Duela zazpi urte antolatu zuten Nafarroako Editoreen lehenengo azoka, eta aurreko urtean Iruñetik Nafarroa osora hedatzea erabaki zuten. Aurten, Altsasun ez ezik, Tafalla, Zangoza, Leitza, Elizondo eta Lizarran ere izanen da Editoreen Azoka. "Zein herritarra joan aztertzen ari garenean, Nafarroako eskualdeak begiratzeko ditugu, eta gero feriak egotea eta jendearen mugimendua egotea bilatzen dugu. Toki batzuetan ezinezkoa da, adibidez,

tokirik ez dagoelako". Altsasu, Sakana, zonalde "garrantzitsua" dela esan du Otazuk, "feriak inportanteak dira eta kanpoko jendea etortzen da; guretzat bertan egoteko herri bat zen". Bigarren urtez izanen da Editoreen Azoka Altsasun, aurten Foru plazan.

Liburu azoka batean liburudendek, "normala denez", saldu nahi dutela esan du Otazuk, "aldea da edozein titulu edo argitaletxetako liburuak saltzen dituztela, gure xedea da nafar editoreen tituluak saltzea". Haien liburuak "zero kilometrokoak" direla esan du: "Euskal Herrian maketatzen dugu, salbuespenen bat egon daiteke, baina orokorrean hemen maketatzen dugu, hemen diseinatzen dugu, inprimatu... Dena hemen egiten da". Liburudendetan edo argitaletxeen webgunetan erostea oso garrantzitsua dela aipatu du Otazuk "Amazonen eskatuta egun batetik bestera liburuak etxean duzu. Baina ez dakit etikoki egokia ote den. Jendeak ez daki zer baldintzetan lan egiten duten. Guk hori kontrolatzen dugu, eta jendeari bertako dendetan erostek zenbateko garrantzia duen azaltzen diogu".



**Erkuden Ruiz Barroso** LAKUNTZA

Ane Zubeldia Morras lakuntzarrak bere lehenengo marrazki erakusketa mustu du Lakuntzako Sorginak tabernan. Urriaren 13tik aurrera ikusgai daude tabernako hormetan 20 urteko gazteak sortutako pertsonaiak. Manga estiloa marraztea gustatzen zaio Zubeldiari, duela zenbait urte jarraitzen du estilo hori. "Oso pozik" dago erakusketarekin, eta dagoeneko jende asko gerturatu da bere lanak ikustera. Manga estiloa jendearengana gerturatzea nahi du, eta erakusketaren "gustatuko" zaiola uste du.

**Noiz hasi zinen marrazten?**

Txikitatik gustatu izan zait marraztea, eta denborarekin ere marrazten jarraitu dut. Gustatzen zait.

**Pintura ikastaroetara joan zara?**

Bai, txikitan hemen, Lakuntzan, pintura eskoletara joaten hasi nintzen. Marraztu, koadroak eta horrelako lanak egiten nintuen.

**Zein estilotako marrazkiak egiten dituzu?**

Orain manga estiloko marrazkiak egitea gustatzen zait, animazio telesailotakoak-eta. Horiek ikustea ere izugarri gustatzen zait. Txuri-beltzak eta koloreak nahasten ditut; batzuetan batzuk eta beste batzuetan beste batzuk egiten ditut.

**Zergatik manga?**

Estilo horietako gauzak ikusten ditudalako. Ez dakit azaldu zehazki zer duten. Animazio horiek gustatzen zaizkit; desberdinak dira. Pertsonaiak ere desberdinak dira.

**Eta marrazteko orduan desberdintzen dira?**

Bai. Desberdinak dira. Marrazten dudanean itxura eta elementuak desberdinak dituzte: aurpegiak, begiak, baita gorputzak ere, guztiz desberdinak dira.

**Zaila da manga estiloko marrazkiak egitea?**

Denetarik dago. Marrazki zailak eta errazak, era guztietakoak.

**Mangaren historia ezagutzen duzu?**

Japoniatik datorren animazio estilo bat da.

**Manga mundu bat da, zer ikustea gustatzen zaizu?**

*One Piece*, esaterako. Pirata batzuen istorioa kontatzen du. Beste animazio batzuk ere ikusten ditut.

**Noiz hasi zinen manga ikusten?**

Pandemiako itxialdian hasi nintzen mangaren munduan sartzen.

# "Manga desberdina da; ez dakit zehazki zer duen"

**ANE ZUBELDIA MORRAS** MARRAZKILARIA

Lakuntzarrak manga eta anime estiloetan oinarritutako lehenengo marrazki eta margo erakusketa mustu du Lakuntzako Sorginak tabernan



Ane Zubeldia Morras artista erakusketan.

Ez dakit nola iritsi zitzaidan, ikusten hasi nintzen, eta gustatu zitzaidan.

**Komikiak jarraitzen dituzu?**

Manga estiloko libururen bat edo beste badut, baina denak txuri-beltzean dira, eta niri tarakatzea gustatzen zait.

**Pertsonaia faboritorik?**

Asko ditut, egia esan. Ezin dut bakarra aukeratu.

**Eta zeren arabera egiten dituzu txuri beltzean edo koloretan?**

Garaiaren edo egunaren arabera izaten da, batzuetan txuri-beltzean egitea gustatzen zait, eta bestetan koloreak nahiago ditut.

**Gutxi gorabehera zenbat denbora behar duzu marrazki bat egiteko?**

Marrazki zailenak egiteko agian hamar ordu inguru behar izaten ditut.

**Zer material erabiltzen duzu?**

**"GEHIEN-GEHIENETAN PERTSONAIK AGERTZEN DIRA; ESZENA DESBERDINETAN"**

**"MARRAZKI ZAIENAK EGITEKO AGIAN HAMAR ORDU INGURU EGON NAITEKE MARRAZTEN"**

Arkatza, errotulagailuak eta boligrafoak.

**Nonbaiten ikasi duzu manga marrazten?**

Nik bakarrik ikasi dut. Animazio telesailak ikusten hasi nintzen eta horiei jarraituz marrazten hasi nintzen. Antzekoak egiten ditut, baina nire ukituak ematen dizkiet. Oraindik ez dut pertsonaia propiorik sortu, horretan nabil; pixkanaka.

**Zenbat marrazki erakutsi dituzu Sorginak tabernako erakusketan?**

Marrazki pila ditut, asko. Gutxi gorabehera hamalau bat jarri ditut erakusketan, baina askoz gehiago geratu dira jarri gabe. Beste batean izan beharko da.

**Eta zergatik aukeratu dituzu horiek?**

Jendearendako bitxiak edo deigarrienak izan daitezkenak hartu ditut. Desberdinenak-edo direnak.

**Nolakoak dira?**

Gehien-gehienetan pertsonaiak agertzen dira, telebistako saioetan oinarritutakoak. Eszena desberdinetan agertzen dira.

**Nola sortzen duzu? Zein da prozesua?**

Marrazkia sortzeko hasteko irudia pentsatzen hasten naiz, zer nahi dudana marraztu pentsatzen dut. Arkatzarekin gutxi gorabehera marrazten dut, bozetoa egiten dut, eta ondoren, boligrafoarekin erreparatzen hasten naiz. Ondoren, txuri-beltzean edo koloreetan egingo dudana erabakitzen dut. Hobeikien zein geldituko den pentsatzen dut. Beraz, bozetoekin hasten naiz eta gero pixkanaka osatzen eta erabakitzen joaten naiz.

**Marrazteko giro berezia behar duzu?**

Lasai nagoenean marrazten dut, nire lasai egoteko momentua da.

**Pintura klaseak ematen jarraitzen duzu?**

Orain ez. Hamahiru edo hamalau urterekin Lakuntzako pintura tailerra utzi nuen, baina nire kabuz marrazten jarraitu nuen, orain arte, marraztea gustatzen zaidalako eta, gehienbat manga marraztea gustatzen zait.

**Pinturarekin zerikusia duen zerbait ikasten ari zara?**

Arte grafikoak ikasten ari naiz, Iruñeko Salesianosetan. Ez dugu asko marrazten, baina artearen munduarekin zerikusi pixka bat badu.

**Marrazten jarraitzen duzu?**

Marrazten jarraitzen dut, eta jarraitzea gustatuko litzaidake, bai.



Felix Mendia Irutzungo baratze ekologiko komunalen erabiltzailetako bat, baratzetan.

# "Baratze komunalen ur sistema berezia da"

Uztailean baratze ekologiko komunak martxan jarri zituzten Irurtzunen. Felix Mendia irurtzundarra erabiltzaileetako bat da, eta pixkanaka baratze lanera egokitzen ari da. Lursailak igerilekuen ondoan daude, eta hortik hartzen dute ureztatzeko ura

**Erkuden Ruiz Barroso** IRURTZUN

## 1 Nola jakin zenuen Irurtzunen baratze ekologiko komunak zeudela?

Baratzeak antolatze edo proiektua osatzeko batzorde bat sortu zuen udalak, eta nik batzorde horretan parte hartu nuen. Hasieratik sartu nintzen proiektuan. Zinegotziak eta zinegotzi izandako batzuk sartu ginen diseinua egiteko; herrian zer nahi eta behar genuen begiratu genuen, eta ikusi genuen aukera ona izanen zela Irurtzunen horrelako zerbait egitea. Bileretan erabaki zen non izango zen, eta begiratu genituen beste herritako antzeko proiektuak, Berriozarkoa, adibidez, baita hango arauak ere. Pixkanaka zirriborro bat osatu genuen, gero udalak txukundu eta zuzendu zuena, eta apirilean onartu zuen. Proiektua nahiko azkar egin zen, baina baratzeak uztailean banatu zituzten, gutxi gorabehera, eta jendea pixkanaka lantzen ari da.

## 2 Zenbat baratze daude?

Baratzeak Berrozen daude eta 31 lursail daude, bakoitza

ehun metro karratu ingurukoa. Jendeak gustura hartu du ekimena, gogoz, eta gehienak hartuta daude. Badaude bizpahiru landu gabe, baina jende berria sartzen ari da. Tamaina egokia daukate. Oso ongi daude.

## 3 Zergatik ikusi zenuen beharrezkoak zirela?

Irutzungo Udalak ikusi zuen beharra eta nik, esaterako, interesa nuen.

## 4 Zein izan da prozesua? Zer egin behar izan duzu baratzea hartzeko?

Udalak arauak onartu ondoren Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren. Irurtzundarra izan behar duzu, hemen erroldatuta egon behar duzu. Lursailen % 80 zuzenean esleituko zaie baldintzak betetzen dituztenei. Lursailak baino interesdun gehiago egonez gero, zozketa egingo zuela onartu zuen udalak. Eta hala gertatu zen, zozketa egin behar izan zuten. Lursailen beste % 20 egoera zaurgarrian dauden pertsonendako da. Bi urterako kontratua sinatu dugu, eta gehienez bostera luzatzeko aukera izango dugu.

Helburuetako bat nekazaritza ekologikoa bultzatzea da, eta beraz ekologikoak izan behar dute.

## 5 Zer esan nahi du horrek?

Ezin dela herbizidarik, pestizidarik edo ongarririk erabili; ongarririk naturala erabili behar dugu. Auzokonpostera bat jartzea ere aurreikusita dago.

## 6 Ura nondik jasotzen duzue?

Berezia da urarena: igerilekuetako ura aprobetxatzen da. Igerilekua oso handia da eta egunero, legez, uraren %5 berri behar dute. Ia 30.000 litro dira. Bi depositu daude, eta bakoitzak 25.000 litro hartzen ditu. Orduan, depositu batean igerilekuko ura sartzen da, eta bestera pasatzen den bitartean kloroa garbitzen da. Xabier Zubialde ingeniariak diseinatu zuen sistema.

## 7 Baratzea uztailean hartu zenuen, udako sasoiaren erdian. Uztarik izan duzue?

Kanpoan nengonez beranduago hartu nuen. Ez digu denborarik eman uzta jasotzeko. Orain negukoak landatzen hasi gara: azak, azaloreak, laster espinakak jarriko

ditugu, porruaketa belar usaintsuak ere jarri ditugu, hala nola albaka, mendafina eta beste hainbat.

## 8 Aurretik baratzean esperientzia zenuen?

Bai, baratzean aritua naiz. Ez da guztiz berria niretzat, baina ez naiz aditua. Moldatzen naiz. Bikoteki-dearekin aritzen gara, pixkanaka. Azken denboraldian denbora gutxi eskaintzen diot, denbora gutxi dudalako. Bestela, askoz maizago etorriko nintzateke.

## 9 Ikasteko zerbait egiten ari zara?

Bitxia da baratzeetan dagoen aniztasuna; jatorri desberdineko jendea dago: hegoamerikarrak, arabiarak, Europa ekialdekoak... Bakoitzak bere modura egiten du, eta elkarrengandik ikasten dugu.

Otsailean edo martxoan, udaberriko sasoiara begira, udalak baratze ekologikoak zaintzen ikasteko ikastaroren bat egin nahi du.

## 10 Zer suposatzen du baratze bat izateak?

Nik uste dut hiri batean edota herri batean baldin bazaude ere zure jakiak landatzea eta jatea garrantzitsua dela. Ez da bakarrik zerbait sinbolikoa, zerbait gehiago bada.

## 11 Non gordetzen dituzue baratzerako tresnak eta abar?

Momentuz ez dugu ezer, eta moldatzen gara. Pixkanaka beharrak sortzen joango dira; hasiberriak gara. Baina jendea oso pozik dago. Lursailetan ezin dugu etxolarik edo horrelakorik egin, baratzea da bakarrik.

Zure argazkia hemen!

**EGUTEGI  
PERTSONALIZATUAK**  
**Diseinu, eredu eta formatu  
 ezberdinak. Aukeratu zurea!**

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

**gik**  
 DISEINUA ETA  
 KOMUNIKAZIOA

f o  
 619 821 436  
 info@gkomunikazioa.eus  
 www.gkomunikazioa.eus  
 Foru plaza, 23-1. Altsasu